

aTLante PROieKTua

LEHEN HEZKUNTZAKO ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK

D eredua

Euskara, Matematika, Gaztelania



aTLante
BILDUMA

2



Nafarroako
Gobernua

aTLante PROieKTua

LEHEN HEZKUNTZAKO ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK
D eredua
Euskara, Matematika, Gaztelania



aTLante
BiLDuma

2



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

TITULUA: Lehen Hezkuntzako Errendimendu Adierazleak. D eredia.

ARGITARATZAILEA: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: NG-IMAGEN Y DISEÑO

MOLDIZTEGIA: ONA - Industrias Gráficas

I.S.B.N: 84-235-2769-7

L.G.: NA-1104/2005

©: Nafarroako Gobernua.Hezkuntza Departamentua.

BULTZATZAILEA ETA BANATZAILEA: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
Navas de Tolosa kalea, 21. 31.002 Iruña
Tel.: 848 427 121. Faxa: 848 427 121
fondo.publicaciones@cnavarra.es
www.cnavarra.es/publicaciones

aurkezpena

Argitarapen honetan Hizkuntzako eta Matematikako errendimendu adierazleak aurkezten dira. Nafarroan Lehen Hezkuntza hobetzeko curriculum material berritzailea osatzen dute, Departamentuak hurrengo urteetarako eratu duen plan estrategikoko (Atlante Plana deitua) neurrien barrenean.

Errendimendu adierazleak curriculumaren garapen bat dira, zeinean argi, labur eta erraz zehazten baita zer helburu eta zer eduki iritsi eta menderatu behar dituzten ikasleek etapako ziklo bakoitza bukatzerakoan. Adierazleok hainbat eginkizun dituzte: ikasleek ikasi behar dutenari buruzko irizpideak batzea Matematika, Gaztelania eta Euskara arloetan Lehen Hezkuntzako ziklo desberdinetan; ikasketa sendo eta progresiboak bermatzea; hurrengo zikloko irakasleei aditzera ematea zer abiapuntu hartu behar duten modu errealista batean beren zikloko helburu eta edukiak itxuratzeko. Tresna ezin hobea dira, halaber, benetako eta eragingarrizko koordinazioa bermatzeko etapako zikloen artean eta Lehen Hezkuntzaren eta DBHko lehen zikloaren artean.

Azken urteotan, beren curriculum proiektuak itxuratu beharrak gogoeta luzea eragin die ikastetxeei zer, nola eta noiz irakatsi eta ebaluatu behar den, ikastetxe bakoitzeko benetako premien arabera. Curriculum proiektu hauek erreferentzigunea dira ikasgelako koordinazio eta programaziorako eta testuliburuak eta beste curriculum material lagungarriak hautatzeko.

Nafarroan egindako ebaluazio desberdinek baliozko informazioa eskuratu digute hezkuntza sisteman azken urteetan sortu diren egoera berri eta korapilatsuei aurre ematerakoan izan dituen lorpenez eta zailtasunez: ikasle etorkinak ugaltzea, atzerriko hizkuntzak txikiagotatik ikastea, hizkuntzen ereduak aukerak, tutoreak, eskola ordutegia eta abar.

Egoera aldakor honetan, bada, komeni da irakasleak orientatu eta curriculum diferentziak saihesteko moduko materialak helaraztea ikastetxeei. Ikasle guztiei bermatu behar zaie benetako aukera berdintasuna, zein ere den haien curriculum garapen maila, haien egoera soziokulturala edo zein ere den haien ikastetxea.

Curriculumaren garatzeko material hauek zubi lana egin behar dute curriculum proiektuetan zehaztu den curriculumaren eta erabilitako testuliburuaren artean. Batetik, irakasleei hizkera argiago eta operatiboago bat eskaini behar diete, eta bestetik, erreferentzi gune izan behar dute testuliburuaren helburu, eduki eta ebaluazio irizpide propio eta orekatuen arabera.

Horregatik itxuratu dira Hizkuntza eta Matematika adierazle hauek. Irakaslez eta prestakuntzako aholkulariz osatu talde batek errebisatu eta doitu ditu, unibertsitateko irakasleak koordinatzaile eta Eskolaren Antolamendu eta Berrikuntzarako Zerbitzua gainbegirale. Lan honen ardura hartu duten taldeek aurretik errendimendu adierazle batzuk ezarri zituzten ikasleek irakasgai ebaluatuetan beretu behar dituen gaitasunen gainean.

Adierazleok ez dira minimo bat; besterik gabe, ezartzen dute zer helburu iritsi behar dituzten Nafarroako ikastetxeetako ikasleek beren adin eta gaitasunaren arabera.

Lagundu nahi dute ikasle bakoitzaren errendimendua handitzen, ikasleen egoera eta gaitasun maila desberdinei erantzuna emanaz. Adierazleok, izan ere, maila edo gradu bat baino gehiago dituzte: batzuk oinarritzakoak dira eta beste batzuk aurreratuak. Horrela, lagungarri dira curriculum egokitzapenak egiteko ere, behar direnean.

Lagungarri ere dira irakasleek ikasgelako programazioak egiteko, zeinetan ikasleek ziklo eta irakasgai bakoitzean zer jakin eta zer egiten jakin behar duten ezartzen baita. Bide ematen dute jarduerak hautatu eta zailtasunei antz emateko, behar diren alderdiak azpimarratzeko moduan, eta irizpideak eskuratzen dizkiete irakasleei helburu eta edukiak noraino iritsi eta barrendu diren neurtzeko.

Adierazten dute norantz orientatu behar den ikasleen ikasketa; ez, ordea, zer baliabide erabili behar diren horretarako. Ez dute prozedurarik agintzen eta ez metodologia didaktiko jakin bat inposatzen; irakasleak libre eta beregain dira ahal den metodorik hoberena ezartzeko, zeina bere agiri pedagogikoetan jasoko baita.

Lagungarri dira ikastetxeen barne ebaluazioko prozedura aurrera eramateko eta bide ematen dute ikusteko ikasleen errendimendua egokia den ala ez. Barne ebaluazioak etengabeko hobekuntzaren zerbitzuan egon behar du eta adierazleok ezarri eta erabiltzea lehen mailako baliabidea da errealitatearen ezagutza hobetzeko.

Bide ematen dute emaitzen araberako hobekuntza ildoak ezartzeko. Lehenago esan den bezala, errendimendu adierazleek agertzen dute zer helburu iritsi behar dituzten ikasleek eta ebaluazioen emaitzek agertzen dute zer egoeratan dauden ikasleak helburu haiekiko. Bien arteko aldea laburtzeko eta ezeztatzeko, hobekuntza ildoak ezarri behar dira, ikastetxearen hezkuntza agirietan jasoko direnak.

Adierazleok lan dokumentuak dira, bestetik, hezkuntza komunitateak, erabiltzearen ondorioz, egiten dizkieten hobekuntzei irekiak. Adierazleak gure Hezkuntza Sistematik espero dugunaren

erreferentzigune dira, baina irekiak daude irakasleen iradokizun, orientazio eta gogoetei, gero batean hobetzeko.

Errendimendu adierazleek ezinbesteko dute Administrazioak Prestakuntza Plan bat helaraztea ikastetxei, irakasleen berriazko premientzako egokia. Hezkuntza Sistema baten maila goratzeak nahitaez behar du irakasleen maila zientifiko eta tekniko ere goratzea. Irakasleek laguntza behar dute ikasgelan modurik eragingarrienean lan egiteko, ahalik eta ikasle gehienek adierazle hauetara iritsi eta gainditzeko.

Herri aurreratuenen emaitzak ikusirik (joan den urte askotan erabiltzen baitute errendimendu adierazleetan oinarritutako ebaluzio sistema) komenigarri da adierazleak erabiltzea lan tresnatzat Nafarroako ikastetxeetan. Adierazleak tresna baliagarri eta eragingarria dira ikasleen ikasketa maila gorarazteko ebaluazioaren, kalitatearen eta aukera berdintasunaren barrenean, eta gainera ez dezagun atzen helburu horiek iristeko garrantzi handikoa dela eskolan giro ona egotea, autoestimua, ikasketaren balioa eta elkarbizitza baketsua bultzatzen dituen, familiak eta gizarte osoa lagun.

Lagungarri izanen ahal zaio argitarapen hau irakasleei Lehen Hezkuntzako ikasgeletan egunero egiten duten lan zail eta batzuetan esker gutxikoan, balioko ahal du, gainera, irakasleei bultza egiteko segi dezaten ikasten eta hezkuntza metodoak berritzen, beti ageri duten hobetzeko ilusio horrekin.

Fermín Villanueva Ferreras

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen zuzendaria.

ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK D EREDUA

euskara. D EREDUA	9
LeHEN zikLoa	15
BiGARREN zikLoa	28
HiRUGARREN zikLoa	43
MaTEMaTIka	63
LeHEN zikLoa	67
BiGARREN zikLoa	80
HiRUGARREN zikLoa	96
LENGUA CaSTELLANA	115
PRIMER CICLO	121
SEGUNDO CICLO	134
TERCER CICLO	149



Hizkuntza adierazleak euskarara. D eredua

Lehen zikloa

1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA.	15
■ Komunikazio egoerak.	15
■ Ahozko elkarreragina.	15
■ Mezuak ulertzea hainbat komunikazio egoeratan.	16
■ Ahozko testuen produkzioa.	16
■ Testuak entzutea, erreproduzitzea eta sortzea.	18
■ Ahozko testuak buruan gordetzea eta erreproduzitzea.	18
■ Adinari egokitutako testuak antzeztea.	19
■ Datuak biltzea, galdetzea.	19
■ Euskararen lagunarteko esaldiak erabiltzea.	19
2. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA.	
IRAKURKETA.	20
■ Ahozko hizkuntza eta idatzizkoaren arteko harremanak.	20
■ Testuak ulertzeko estrategiak.	20
■ Testuak ulertzeko estrategiak: izenburua, ilustrazioak ...	20
■ Irakurketari gustua hartzea. Irakurtzeko ohitura.	21
■ Mezuak identifikatzea.	21
■ Liburutegia.	21
■ Irakurketa, ikasteko tresna.	22
■ Komunikabide idatziak.	22
■ Haur literatura.	22
3. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA.	
IDAZMENA.	22
■ Komunikatzeko baliabide grafikoak.	22
■ Testuak ekoiztea. Tipologiak.	23
■ Hitzeko hizkuntza eta hitzezkoa ez dena.	24
■ Testuak produzitzeko arauak eta estrategiak.	24

4. HIZKUNTZAREN ALDE ARTISTIKOA ETA LUDI KOA.	25
5. HIZKUNTZAREN GAINEKO HAUS NARKETA.	25
■ Hizkuntzaren oinarrizko egiturak. Hitza.	25
■ Hiztegia. Ere mu semantikoak.	25
■ Alfabetoa eta bere ordena.	26
■ Ortografia.	26
■ Aditz aldiak bereiztea.	26
6. KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA.	27
■ Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) erabiltzen hastea.	27
■ Hezkuntza programa errazak.	27
■ IKTak erabiltzeko interesa.	27

BiGARREN ZIKLOA

1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA.	28
■ Komunikazio egoerak.	28
■ Komunikaziorako estrategiak eta arauak.	28
■ Ahozko testuak produzitzea.	29
■ Testu literarioak produzitzea, bai prosan, bai bertsoan.	30
■ Ahozko testuak ulertzea.	30
■ Testuak entzutea eta erreproduzitzea.	31
■ Ahozko testu laburrak buruan hartzea.	32
■ Adinari egokitutako testuak antzeztea.	32
■ Ahozko komunikazioa ikasteko tresna gisa erabiltzea.	33
■ Euskarazko lagunarteko esaldiak erabiltzea.	33
2. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA. IRAKURKETA.	33
■ Ahozko hizkuntza eta idatzizkoaren arteko harremanak.	33
■ Ozen irakurtzea.	34
■ Hainbat testu isilik irakurtzea eta ulertzea.	34
■ Testuak buruan hartzea.	34
■ Testuak ulertzeko estrategiak.	34

▪ Irakurketari gustua hartzea.	35
▪ Testuetako mezuak eta balioak identifikatzea.	35
▪ Liburutegia erabiltzea.	35
▪ Komunikabide idatziak.	36
3. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA. IDAZMENA.	36
▪ Idatziz komunikatzeko baliabide grafikoak.	36
▪ Testuak produzitzea. Tipologiak.	36
▪ Testuak produzitzeko arauak eta estrategiak.	37
▪ Ortografia testuen ekoizpenean.	38
▪ Hitzeko hizkuntza eta hitzezkoa ez dena erabiltzea.	38
4. HIZKUNTZAREN ALDE ARTISTIKOA ETA LUDIKOA.	38
5. HIZKUNTZAREN GAINKO HAUSNARKETA.	39
▪ Hizkuntzaren oinarrizko egiturak: perpausa.	39
▪ Hitz motak: izena, aditza, adjektiboa, pertsona izenordainak.	39
▪ Testu motak: narrazioa, deskribapena, elkarrizketa.	39
▪ Lexemak eta deklinabideko morfemak. NORK kasua.	39
▪ Kohesio gailuak: testu-markatzaileak.	40
▪ Hiztegia. Eredu semantikoak.	40
▪ Ortografia.	40
▪ Aditzaldiak. Aditz motak.	41
▪ Esaldia manipulatzeko.	41
6. KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA.	41
▪ Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak ikasteko tresna modura erabiltzea.	41
▪ Hezkuntza programak erabiltzea.	42
▪ IKTak lan-tresna modura erabiltzeko interesa.	42

HIRUGARREN ZIKLOA

1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA.	43
■ Komunikazio egoerak, sortzen direnak edo gidatuak.	43
■ Testuak entzutea eta erreproduzitzea.	43
■ Tipologia guztietako ahozko testuak produzitzea.	44
■ Testu literarioak prosan edo bertsoan sortzea.	45
■ Ahozko testuak ulertzea.	46
■ Antzeztea.	46
■ Komunikaziorako estrategiak eta arauak.	46
■ Ahozko hizkuntza ikasteko tresna gisa erabiltzeko estategiak.	47
■ Intonazioa eta ahoskapena.	48
■ Euskarazko lagunarteko esaldiak erabiltzea.	48
2. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA. IRAKURKETA.	48
■ Ahozko hizkuntza eta idatzizkoaren arteko harremanak.	48
■ Ozen irakurtzea.	48
■ Hainbat testu isilik irakurtzea eta ulertzea.	49
■ Hainbat testu entzutea.	49
■ Testuak ulertzeko estrategiak.	49
■ Irakurketari gustua hartzea.	50
■ Testuetako mezuak eta balioak identifikatzea.	50
■ Liburutegia erabiltzea.	51
■ Komunikabide idatziak.	51
■ Haur literatura.	51
3. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA. IDAZMENA.	51
■ Idatziz komunikatzeko baliabide grafikoak.	51
■ Testuak produzitzea. Tipologiak.	52
■ Hitzezko hizkuntza eta hitzezkoa ez dena erabiltzea.	52
■ Testuak produzitzeko arauak eta estrategiak.	53
■ Idazmena, ikasteko tresna gisa.	54
4. HIZKUNTZAREN ALDE ARTISTIKOA ETA LUDIKOA.	55

5. HIZKUNTZAREN GAINEKO HAUS NARKETA.	55
■ Hizkuntzaren oinarrizko egiturak: perpaus bakuna.	55
■ Hitz motak: izena, aditza, adjektiboa, pertsona izenordainak, artikulua, interjekzioak, determinatzaileak, posposizioak, juntagailuak/menderagailuak.	56
■ Izen motak.	57
■ Hiztegia.	57
■ Testu motak.	58
■ Kohesio gailuak.	58
■ Deklinabidea.	58
■ Ortografia.	59
■ Aditza: trinkoak, perifrastikoak. Aditz aspektua.	59
■ Perpausa manipulatzeko.	59
6. KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA.	60
■ Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak ikasteko tresna modura erabiltzea.	60
■ Hezkuntza programak erabiltzea.	60
■ Informazioa Interneten bilatzea.	60
■ IKTak lan-tresna modura erabiltzeko interesa.	60
■ Posta elektronikoa zuzen erabiltzea.	61

OHARRA: Izar bat edo bi daramatzaten adierazleak,
sakontze maila sakonago bati dagozkio.



LEHEN ZIKLOA

1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Komunikazioan elkarreragina sortzeko egoerak, berezkoak edo gidatuak, solaskide ezagunekin, testuinguru hurbiletan eta diskurtsoan ordena espazial, kronologiko edo logiko bati segituz, talde txikietan edo handietan.

ADIERAZLEAK

1. Ikasgelako eguneroko jarduerak egiteko ikasleei ahoz ematen zaizkien jarraibideei segitzea: "adi egon!", "etorri!", "eseri!"
2. *Esamolde egokiak erabiltzea baimena eskatzeko: zerbait hartzeko, hitz egiteko txanda lortzeko, ikasgelatik ateratzeko edo jardueraz aldatzeko.
3. Ikaskideei zuzendutako galderak zuzen egitea, norberak lortu nahi duen informazioa eskuratzeko.
4. Mintzamenari laguntzea begiratua eta keinuak egoki erabiliz.
5. *Eskola edo kirol gertaera edo jarduera bat deskribatzea, denboraren ordenari dagokion sekuentziaren arabera: hasieran, gero, bukaeran.
6. Eskolako esperientzia bat ikasgelan kontatzea, espazioan ordenatuta: barnean-kanpoan, goian-behean, hurbil-erdian-urrun ...
7. Orainaldiko, iraganaldiko eta geroaldiko aditz formarik ohikoenak zuzen erabiltzea eskolan elkarreragina sortzen duten jardueretan.
8. Laguntza eskatzea eskolako lanak egiteko.
9. Behar denean eskerrak ematea, formularik ohikoenak erabiliz: "Eskerrik asko" / "Mila esker".
10. Gonbit errazak egitea: urtebetetzeak, ikasgelako azalpen laburrak, antzezlan laburrak ...

Elkarreragina: Komunikaziorako estrategiak eta arauak.

ADIERAZLEAK

- 1 1. Isilik egotea solaskidea hitz egiten ari den bitartean.
- 1 2. Hitz egiteko txanda errespetatzea ikasgelako bileretan.
- 1 3. *Hitz egiteko txanda errespetatzea eskolako lan-talde txikietan.
- 1 4. *Solasegi berari eustea taldeko kideendako esanguratsua eta interesekoa denean.
- 1 5. Adi egotea taldeko norbait hitz egiten ari denean: geldirik egotea, ez distraitzea, solasaldian ez sartzea, portaera zuzena izatea.

16. Irakasleak emandako mezu errazak (mandatuak, abisuak, aginduak, kontsignak) leialki errepikatzea.
17. Solaskideari begiratzea hitz egiten ari zaigun bitartean.

Ahozko testu esanguratsuak ulertzea. Testuaren zentzu globala. Informazio garrantzitsuak eta ez-garrantzitsuak identifikatzea. Hiztegia aberastea. Komunikazioaren elementu ez-linguistikoak.

ADIERAZLEAK

18. Aurretik entzundako testu baten gaineko galderei erantzutea.
19. * Testu labur bat entzun ondoren, testu horren laburpena egitea ikastaldeari.
20. Irakasleak irakurritako testu batean entzundako hitz ezezagunen esanahia zein den galdetzea.
21. Berezko diskurtso batean hitz ezezagunen esanahia zein den galdetzea.
22. Testu labur batean informaziorik garrantzitsuena zein den antzematea.
23. Narrazio bateko pertsonaiak identifikatzea.
24. Narrazio bateko gertaerak zuzen kokatzea.
25. ** Entzundakoa kontatzerakoan, entzunaldian ikasitako hitz berriak erabiltzea.
26. Azalpen labur bat entzutea distraitu gabe.
27. Termino ezezagunen esanahia zein den galdetzea.
28. Entzun edo ulertu ez den zerbait errepikatzeko eskatzea.

Ahozko testuak produzitzea. Egoera edo esperientzia pertsonalak kontatzea. Pertsonen, animalien eta objektuen deskribapen errazak egitea, modu argi eta ordenatuan. Zerrendatzeak. Informazioa eskatu eta ematea. Informazio laburrak. Azalpen laburrak jendaurrean. Kortesiako eta giza-harremanetarako formulak.

ADIERAZLEAK

29. ** Eskolako lan-talde txikietan norberak bere iritzia agertzea, gogotik eta ulertzeko moduan.
30. Ahozko agindu errazak betetzea: "Atera hizkuntza liburua", "Jar zaitetze lerroan", "Jarri binaka", etab.
31. Keinu adierazkor ohikoenei zuzen erantzutea: "zatoz!", "isildu!"...
32. * Ikaskideei proposatzea joko edo jarduera bat egitea.
33. Ikaskideei zuzendutako agurrei eta gizalegezko bestelako modu batzuei erantzutea, behar diren keinuak eginez eta buruz ikasitako esamoldeak erabiliz.
34. Norberak bere ekimenez agur egitea gizalegezko formularik ohikoenak erabiliz: "Kaixo", "Egun on", "Arratsalde on", "Agur", "Eskerrik asko"...

35. Ilustrazio bati buruzko bi esaldi erraz esatea.
36. Hurbileko pasadizo edo bizipen bat kontatzea, gutxieneko ordena kronologikoan (hasiera eta bukaera): etxeko istripu bat; jolastokian gertatutako zerbait; lagunekin gertatutako zerbait; jantokian eta eskolaz kanpoko jardueretan gertatutakoak; bezperan, arratsaldean, klasea bukatu ondoren egindakoa ...
37. Hurbileko pertsona bat bere ezaugarri fisikoen bidez deskribatzea, gutxieneko ordena espazial bati jarraikiz: burua - enborra - gorputz-adarrak, edo goian - behean, etab.
38. Hurbileko animalia bat bere ezaugarri fisikoen bidez deskribatzea, gutxieneko ordena espazial bati jarraikiz: burua - enborra - gorputz-adarrak, edo goian - behean, edo aurrean - atzean, etab.
39. Ikasgelan ez dagoen objektu bat deskribatzea, gutxienez oinarrizko hiru ezaugarri aipatuz: Olentzeroren opari bat, Agirre sagutxoaren opari bat, jostailu bat, jantzi bat, etab.
40. * Ikasgelan ez dagoen objektu bat deskribatzea, gutxienez oinarrizko bost ezaugarri aipatuz: Olentzeroren opari bat, Agirre sagutxoaren opari bat, jostailu bat, jantzi bat, etab.
41. * Berriki bisitatutako paisaia bat deskribatzea, tokia erraz identifikatzeko moduan.
42. Ondoko arloetako elementuen zerrenda egitea (bost, gutxienez): familia, gustatzen zaizkien elikagaiak, egin ditzaketan kirolak...
43. * Ondoko arloetako elementuen zerrenda egitea (zortzi, gutxienez): familia, gustatzen zaizkien elikagaiak, egin ditzaketan kirolak...
44. ** Ondoko arloetako elementuen zerrenda egitea (hamabi, gutxienez): familia, gustatzen zaizkien elikagaiak, egin ditzaketan kirolak...
45. Izaki bizidun baten (familiako norbaiten, lagun baten, animalia baten ...) tasunen zerrenda egitea (hiru, gutxienez).
46. * Izaki bizidun baten (familiako norbaiten, lagun baten, animalia baten ...) tasunen zerrenda egitea (bost, gutxienez).
47. ** Izaki bizidun baten (familiako norbaiten, lagun baten, animalia baten...) tasunen zerrenda egitea (zazpi, gutxienez).
48. Galdetzea zerbait ulertzen ez dutenean.
49. Galdera bati egoki erantzutea: "tazoetara" nola jolasten diren, zergatik ez diren kromoetan jolasten, lagunarekin haserre egotearen arrazoiak ...
50. * Entzundako berri labur bat zehatz-mehatz kontatzea honako hauek erabiliz: NORI, NOIZ, NON, ZER.
51. Ikastaldeari kontatzea albiste bat, astebururako plan bat, gertaera garrantzitsu bat, zakurraren azken bihurrikeria, etab.
52. Ikasgelan landutako olerki bat (bertso laburra, gutxienez lau lerrokoa) adierazkortasunez erreztatzea.
53. * Ikasgelan landutako olerki bat (bertso laburra, gutxienez sei lerrokoa) adierazkortasunez erreztatzea.
54. ** Ikasgelan landutako olerki bat (bertso laburra, zortzi lerrokoa) adierazkortasunez erreztatzea.

Olerkiak errezipatzea, intonazio eta ahoskera egokiz eta euskarari berezko zaizkion formetan enfasi berezia jarritz. Prosako testuak sortzea helburu estetikoarekin eta ludikoarekin.

ADIERAZLEAK

55. Olerkiak errezipatzen dituztenean, s eta z egoki ahoskatzea.
56. Olerkiak errezipatzea eta galderari behar duen intonazioa ematea.
57. Olerkiak errezipatzea eta harridurari behar duen intonazioa ematea.
58. Olerkiak errezipatzean geldialdiak zuzen markatzea: puntuak, komak ...
59. Kateatutako hitz jokoan hitzak gehitzea.
60. Esaldi logikoak gehitzea ondoko bezalako sailetan: URAK SUA ITZALI, SUAK MAKILA ERRE, MAKILAK TXAKURRA JO ...
61. Hitzak gehitzea kategoriak (lanbideak, landareak, arrainak, hegaztiak ...) osatzeko.
62. * Hitz bat oinarritzat hartuz, beste hitz eta esaldi batzuekin errimak ateratzea.
63. ** Ahozko testu ludikoak sortzea: asmakizunak, hitz-korapiloak, txisteak ...

Ahozko testuak (Ipuinak, olerkiak, aho-korapiloak, leloak, asmakizunak, kantuak) entzutea, buruan hartzea eta erreproduzitzea.

ADIERAZLEAK

64. Asmakizun bat leialki kontatzea.
65. Asmakizun batekin zerikusia duten galderei erantzutea.
66. Abesti bat kantatzea, abesti horren edukiarekin zerikusia duten ekintzetan lagundurik.
67. * Txiste erraz bat kontatzea, ordena egokian eta bukatu arte.
68. Lelo erraz bat errepikatzea, ordenari eutsiz eta erritmoan lagundurik.
69. Ipuin bat kontatzea euskarri grafikoaren laguntzaz (laminak, norberaren marrazkiak, liburu-etako ilustrazioak, etab.) eta ipuinaren oinarritzko egitura errespetatuz: hasiera-korapiloa-amaiera.
70. Narrazio batean orainaldiko, iraganaldiko eta geroaldiko aditz formarik erabilienak zuzen erabiltzea.
71. ** Ipuin bat kontatzea euskarri grafikoaren laguntzaz (laminak, norberaren marrazkiak, liburu-etako ilustrazioak, etab.) eta ipuinaren oinarritzko egitura errespetatuz: hasiera-oreka haustea-korapiloa-bukaera-egoera berria.
72. Irakasleari eskatzea aho-korapiloak, ipuinak, istorioak ... errepika edo errezipa ditzala.
73. * Gustatu zaizkien bertsoak, aho-korapiloak beren ekimenez errepikatzea.
74. Abestiak edo formulak errezipatzea sokasaltoan, ezkutaketan, korroan ...
75. Aho-korapiloak erraz samar errezipatzea.
76. * Bi aho-korapilo erraz samar errezipatzea.
77. ** Hiru aho-korapilo erraz samar errezipatzea.

- 78. Atsotitzaren lehen zatia emanik, gutxienez bi atsotitz zuzen bukatzea.
- 79. * Atsotitzaren lehen zatia emanik, gutxienez lau atsotitz zuzen bukatzea.
- 80. ** Atsotitzaren lehen zatia emanik, gutxienez sei atsotitz zuzen bukatzea.
- 81. * Gutxienez 30 hitzeko olerki bat buruz errezitatzea.
- 82. ** Gutxienez 40 hitzeko olerki bat buruz errezitatzea.

Adinari egokitutako testuak antzeztea. Parte hartzeko gustua izatea.

ADIERAZLEAK

- 83. ** Antzezlan laburrak buruz ikasi eta antzeztea.
- 84. Antzerkiko lanen bat (ez figurante moduan) egiteko beren burua eskaintzea.

Ahozko hizkuntza komunikatzeko eta ikasteko tresna bezala erabiltzeko estrategiak: datuak biltzea, entzutea, galdetzea.

ADIERAZLEAK

- 85. Keinu egokiak erabiltzea pertsonak, tokiak, tamainak ... adierazteko.
- 86. Testu labur bat (kantua, aho-korapiloak, atsotitzak, koplak ...) buruz errezitatzea.
- 87. * Hitzak errepikatzea eta birformulazioak egitea ulertuak izateko.
- 88. Abiadura egokiaz hitz egitea solaskideak errazago uler gaitzan.
- 89. Egoki ahoskatzea solaskideak errazago uler gaitzan.
- 90. * Adibide bat jartzea norberaren diskurtsoa ilustrazioz hornitzeko.

Euskararen lagunarteko esaldiak erabiltzea.

ADIERAZLEAK

- 91. Euskarazko lagunarteko esaldiak jariotasunez erabiltzea: "Bai, zera!" "Kitto!", "Hor konpon", "Noski" ...

2. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA. IRAKURKETA

Ahozko hizkuntza eta idatzizkoaren arteko harremanak. Fonemen eta grafien arteko korrespondentzia.

ADIERAZLEAK

- 92. Testu esanguratsuetan (ipuinetan, atsotizetan, pasadizoetan...) inprimategi erako letra larrietan idatzitako fonemak eta grafiak irakurtzea lehenak bigarrenekin zuzen bat etorritz.
- 93. Testu esanguratsuetan (ipuinetan, atsotizetan, pasadizoetan...) inprimategi erako fonemak eta grafiak irakurtzea, lehenak bigarrenekin zuzen bat etorritz.
- 94. Testu esanguratsuetan (komikietan, karteletan...) eskuz idatzitako fonemak eta grafiak irakurtzea, lehenak bigarrenekin zuzen bat etorritz.
- 95. Testu esanguratsuetan (ipuinetan, atsotizetan, pasadizoetan...) eskuz idatzitako fonemak eta grafiak irakurtzea, lehenak bigarrenekin zuzen bat etorritz.

Estrategiak. Literatura testu laburrak eta literaturakoak ez direnak (oharrak, etiketak, zerrendak, kartelak ...) irakurtzea, isilik zein ozenki eta ulertuz zer esaten den.

ADIERAZLEAK

- 96. Eskola edo familia inguruetan irakurritako oharren, etiketen, zerrenden ... edukiari buruzko galderei egoki erantzutea.
- 97. Aurretik isilik irakurritako literatura testu bateko hiru biñeta gutxienez ordenatzea.
- 98. * Aurretik isilik irakurritako literatura testu bateko bost biñeta gutxienez ordenatzea.
- 99. ** Aurretik isilik irakurritako literatura testu bateko zazpi biñeta gutxienez ordenatzea.
- 100. Aurretik isilik irakurritako testu laburrak intonazio egokiz irakurtzea.
- 101. Harridura eta galdera markak zuzen interpretatzea.
- 102. s, z edo x soinuetako bat duten hitzak egoki ahoskatuz irakurtzea.
- 103. ** s, z eta x soinuetako bi gutxienez duten hitzak egoki ahoskatuz irakurtzea.
- 104. * Testu labur bat ozen irakurtzean puntu eta komari dagozkion etenaldiak errespetatzea.

Testuak ulertzeko estrategiak. Izenburua. Ilustrazioak. Berriz irakurtzea. Hipotesiak aurrez ikustea. Testuaren zentzu globala. Zalantzak argitzea galderak eginez.

ADIERAZLEAK

- 105. Hainbat testuren artetik egokiena aukeratzea eginkizun jakin bat gauzatzeko eta izenburuaz soilik baliaturik.

- 1 0 6. Testuen eta izenburuen arteko erlazioa ezartzea.
- 1 0 7. Izenburuaren irakurketa erabiltzea testuaren oinarritzko informazioa ateratzeko.
- 1 0 8. Testu bateko ilustrazioak erabiltzea testuaren oinarritzko informazioa ateratzeko.
- 1 0 9. Ikasleak irakurri beharreko testuaren gaineko hipotesi errazak egitea.
- 1 1 0. * Irakurketan frogatzea egin diren hipotesiak baieztatu egin direla.
- 1 1 1. ** Hipotesi berriak egitea irakurketan oinarriturik.
- 1 1 2. * Laburpen erraz bat egitea irakurritako testu baten oinarritzko informazioarekin.
- 1 1 3. ** Testu labur bat ahoz laburtzea.
- 1 1 4. Testu bat lehen aldiz irakurtzen denean ulertu gabeko hitzak eta esamoldeak galdetzea.

Irakurketari gustua hartzea. Irakurtzeko ohitura. Irakurketa guneak (ipuin txokoak) sortzea.

ADIERAZLEAK

- 1 1 5. * Ikasgelako tarte libreak irakurtzeko aprobeztatzea (norberaren ekimenez).
- 1 1 6. Eskolako liburutegian gogotik parte hartzea, esate baterako: ipuinak aldizka hartuz eta ekarriz.
- 1 1 7. Entzunaldi bateko (ipuin bateko, abesti bateko, olerki bateko...) testu transkribatu bat begiradarekin segitzea.
- 1 1 8. * Entzunaldi labur batean entzundako intonazioa eta erritmoa imitatzea.
- 1 1 9. Irakurritako testu labur bat buruz errezitatzea: kantua, koplak, aho-korapiloa ...

Testu erraz batek transmititutako mezuak identifikatzea.

ADIERAZLEAK

- 1 2 0. Testu erraz baten bidez emandako aginduak betetzea.
- 1 2 1. Eskolako lan bateko balorea identifikatzea hiruzpalau aukeraren artean.

Liburutegia. Irakurketa txokoak erabiltzea eta haietan gozatzea.

ADIERAZLEAK

- 1 2 2. Liburutegia eskolan non dagoen eta bere ordutegia zein den jakitea.
- 1 2 3. Liburutegiko guneen funtzioa ezagutzea.

Irakurketa, ikasteko tresna.

ADIERAZLEAK

- 1 2 4 . * Grafikoak, marrazkiak, diagramak, ... informazio iturri gisa identifikatzea.
- 1 2 5 . Irakurritakoa bilatutako informazioa denetz bereiztea.

Komunikabide idatziak (egunkariak, aldizkariak, informazio foiletoak ...) erabiltzea.

ADIERAZLEAK

- 1 2 6 . * Komunikabide idatzietatik (egunkarietatik, aldizkarietatik ...) informazioa ateratzea.

Haurrendako literaturako lanak, adinari egokitutakoak, irakurtzea: ipuin klasikoak, haurrak agertzen diren ipuinak, fantasiako ipuinak, bizipen ipuinak ...

ADIERAZLEAK

- 1 2 7 . Aurretik irakurritako testu bati buruzko galderei erantzutea.
- 1 2 8 . Irakurritako testu labur batean hiru aukeraren artean informaziorik garrantzitsuena zein den ezagutzea.
- 1 2 9 . Narrazio bateko pertsonaiak identifikatzea.
- 1 3 0 . Narrazio bateko gertaerak zuzen kokatzea.
- 1 3 1 . * Irakurritakoa kontatzerakoan, irakurtzean ikasitako hitz berriak erabiltzea.
- 1 3 2 . Objektu bat edo pertsona bat grafikoki irudikatzea, aurretik haien deskribapena irakurri ondoren.
- 1 3 3 . * Testu bat irakurtzea jarotasunez eta silabatan zatikatu gabe.
- 1 3 4 . Irakurritako testuetan komaren eta puntuaren etenaldiak egitea.

3. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA. IDAZMENA.

Komunikatzeko baliabide grafikoak. Irakurketaren eta idazketaren sistema ezagutzea eta erabiltzea.

ADIERAZLEAK

- 1 3 5 . Alfabetoko letra larri eta xehe guztiak irakurtzeko moduan trazatzea.
- 1 3 6 . * Idazteko behar diren fonema guztiei dagozkien letra guztiak zuzen erabiltzea.
- 1 3 7 . Ikasleek berek sortutako testu labur bateko hitzak zuzen bereiztea.

- 1 3 8. Irakasleak diktatutako testu labur bateko hitzak zuzen bereiztea.
- 1 3 9. Paper lerrodun baten laguntzaz lerro zuzena mantenduz idaztea.
- 1 4 0. Ikasleek berek sortutako testu labur bateko hitzak zuzen bereiztea.

Testu laburrak produzitzea ezagutzak, esperientziak edo beharrak komunikatzeko. Narrazioak. Deskribapenak. Mandatuak, zorion-txartelak, errezetak, zerrendak, oharrak ...

ADIERAZLEAK

- 1 4 1. * Aurretik entzundako berri labur bat era ulergarrian idaztea.
- 1 4 2. ** Lagunarteko gutun bat zuzen idaztea nahiak eta beharrak adierazteko.
- 1 4 3. Norberak bere esperientziak (txangoak, gertaerak, pasadizoak...) kontatzea, idatziz eta gutxieneko koherentziaz.
- 1 4 4. Narrazio batean orainaldiko, iraganaldiko eta geroaldiko aditz formarik ohikoenak zuzen erabiltzea.
- 1 4 5. ** Ipuin baten hasiera eman ondoren, bukaera koherente bat asmatu eta osorik idaztea.
- 1 4 6. Aurretik hiru biñetako komiki bat emanik, diskurtso erako narrazio bihurtzea.
- 1 4 7. Hurbileko pertsona bat bere ezaugarri fisikoen bidez deskribatzea, gutxieneko espazio ordena bati jarraikiz: burua - enborra - gorputz-adarrak, edo goian - behean, etab.
- 1 4 8. * Hurbileko pertsona bat bere ezaugarri psikologiko baten bidez deskribatzea, gutxieneko espazio ordena bati jarraikiz: burua - enborra - gorputz-adarrak, edo goian, behean, etab.
- 1 4 9. Hurbileko animalia bat bere ezaugarri fisikoen bidez deskribatzea, gutxieneko espazio ordena bati jarraikiz: burua - enborra - gorputz-adarrak, edo goian - behean, edo aurrean - atzean, etab.
- 1 5 0. Objektu bat deskribatzea oinarrizko ezaugarrietatik gutxienez hiru erabiliz: Olentzeroren opari bat, Agirre saguaren opari bat, jostailu bat, jantzi bat, etab.
- 1 5 1. * Paisaia bat deskribatzea espazio ordena kontuan harturik.
- 1 5 2. Ohar errazak idaztea oharrak, kontsignak, mandatuak eta mezu laburrak egoki transmititzeko.
- 1 5 3. Errezeta errazak idaztea, aurretik prestatu dituzten edo etorkizunean prestatuko dituzten ekintzen ordena zuzenari jarraikiz.
- 1 5 4. Zorion-txartelak prestatzea: urtebetetzea, Eguberriak, etab. Ohiko formulak erabiliko dira: "Zorionak eta urte berri on!", "Zorionak zure urtebetetzean"...
- 1 5 5. * Gonbit errazak egitea: urtebetetzeak, azalpen laburrak ikasgelan, antzezlan laburrak ...

Hitzezko hizkuntza eta hitzezkoa ez dena.

ADIERAZLEAK

- 156. Elementu zerrendekin (pertsonek eta animaliak, arrainak eta hegaztiak ...) taulak osatzea, aurretik markatutako kategoriak errespetatuz.
- 157. Idazki bat osatzeko ideia eta material egokiak eta erabilgarriak (grafikoak, argazkiak, etab.) biltzea.

Testuak produzitzeko arauak eta estrategiak. Plangintza, helburua, hartzailea. Berrikusketa eta berridazketa. Ortografia naturala. Galdera eta harridura. Puntua. Zerrendatzeetan koma erabiltzea. Kaligrafia. Ordena eta garbitasuna.

ADIERAZLEAK

- 158. Idazten hasi aurretik idatzi beharreko testuaren izenburua zein izanen den erabakitzea.
- 159. * Eskura dagoen espazioan (orrialdean, koadernoan, hormirudian ...) hitzezko elementuen eta hitzezkoak ez direnen banaketa zein izanen den xeheki planifikatzea.
- 160. * Lana planifikatzean eta prestatzean kontuan izatea idazkiaren helburua eta hartzailea zein diren.
- 161. ** Testu bat idazterakoan egindako lana (plangintza, izenburua, ordena, argazkia, gramatika) berrikustea.
- 162. * Testu bat idazten bukatzean egindako lana (plangintza, izenburua, ordena, argazkia, gramatika) berrikustea.
- 163. * Testu bat berriz idaztea, testu hori berrikustean egindako proposamenak (ortografia akatsak, ideien ordena, gramatika errakuntzak ...) kontuan hartuz.
- 164. ** Testu bat berriz idaztea testua hobetzeko gainbegiratze prozesuan egindako proposamenak (lokailuak, ideien garapena ...) kontuan hartuz.
- 165. Galderaren bukaeran harridura marka jartzea.
- 166. Esaldi eginetan harridura marka jartzea.
- 167. * Harridura esaldietan behar den marka jartzea.
- 168. Testuaren bukaeran puntua jartzea.
- 169. Esaldiaren bukaeran puntua jartzea.
- 170. Zerrendatzeetan koma erabiltzea.
- 171. Testu osoan zehar letrak tamaina berekoak izatea.
- 172. Letra larrien eta xeheen arteko tamaina desberdintasuna errespetatzea.
- 173. Oker idatzitako hitzak ezabatzea marka nabarmenik utzi gabe.
- 174. * Testuaren marjinak (albokoak eta lerroartekoak) errespetatzea.
- 175. Behar den letra larria idaztea testuaren hasieran, puntuaren ondoren eta izen bereziaren lehen letran.

- 176. Zerotik hogeira bitarteko zenbakien izenak zuzen idaztea.
- 177. * Zerotik ehunera bitarteko zenbakien izenak zuzen idaztea.
- 178. Data idaztea urtea-hilabetea-eguna (2004/01/01) ordenan.

4. HIZKUNTZAREN ALDE ARTISTIKOA ETA LUDI-KOIA

Bloke honetako adierazleak aurrekoetan tartekaturik daude:

Ahozko komunikazioan: 52tik 55era, 60, 62, 63, 67, 72tik 82ra

Irakurketan: 24tik 28ra

5. HIZKUNTZAREN GAINEKO HAUSNARKETA

Hizkuntzaren ohinarrizko egiturak. Hitza. Hitza oinarrizko unitate esanahidun moduan. Hitza perpausaren barnean. Hitzaren barnean silabak zein diren ezagutzea. Izen bereziak eta arruntak.

ADIERAZLEAK

- 179. Ahozko hizkuntza hizkuntza mimikotik bereiztea.
- 180. Ahozko hizkuntza hizkuntza ikonikotik bereiztea.
- 181. Testu batean hainbat morfema hartzen dituen lexema bat ezagutzea: ama, amei, amentzat...
- 182. Testu batean hainbat lexemarekin errepikatzen diren morfemak ezagutzea: amentzat, niretzat, guretzat ...
- 183. Esaldi batean zenbat hitz dauden zuzen kontatzea.
- 184. Hitz batek zenbat silaba dituen zuzen kontatzea.
- 185. Testu batean izen bereziak eta izen arruntak bereiztea.

Hiztegia. Ere-mu semantikoak. Hitz familiak. Sinonimoak eta antonimoak.

ADIERAZLEAK

- 186. * Hitz bakoitzaren esanahia haren ere-mu semantikoarekin erlazionatzea.
- 187. Zikloan landutako gai baten elementu bat emanik, gutxienez bost hitzeko ere-mu semantiko bat egitea.
- 188. * Zikloan landutako gai baten elementu bat emanik, gutxienez zortzi hitzeko ere-mu semantiko bat egitea.
- 189. ** Zikloan landutako gai baten elementu bat emanik, gutxienez hamabi hitzeko ere-mu semantiko bat egitea.
- 190. Hitz zerrenda bat emanik, ere-mu semantiko jakin batekoak diren lau hitz zuzen identifikatzea.

- 191. Zikloari egokitutako testu batean familia bereko hitzak identifikatzea.
- 192. Hitz bat emanik, familia bereko beste hitz batzuen zerrenda egitea.
- 193. Zerrenda bat emanik, familia jakin batekoak ez diren hitzak bereiztea.
- 194. * Testu batean aurretik emandako hitz baten sinonimo bat ezagutzea.
- 195. Bost hitzeko bi zerrenden artean sinonimia erlazioak ezartzea.
- 196. ** Aurretik emaniko testu batean, lau hitz beren sinonimoengatik ordezkatzeta.
- 197. * Emandako hitz baten antonimoa testu batean ezagutzea.
- 198. ** Aurretik testu bat emanik, sei hitz beren antonimoengatik ordezkatzeta.
- 199. Bost hitzeko bi zerrenden artean antonimia erlazioak ezartzea.

Alfabetoa eta alfabetoaren ordena ikasten hastea.

ADIERAZLEAK

- 200. Zerrenda bateko hitzak zuzen ordenatzea alfabeto idatzi batez lagundurik.

Ortografia. Ortografia naturala. Hitzak esaldian bereiztea. Letra larriak erabiltzea. Maiz erabilitako hitzen ortografia prebentiboa. Ortografia zuzenarekiko interesa.

ADIERAZLEAK

- 201. Fonema bere grafiarekin identifikatzea.
- 202. * Norberak edo ikaskide batek ortografia naturalean egindako errakuntzak identifikatzea.
- 203. Esaldi batean elkaturik dauden hitzak zuzen bereiztea.
- 204. ** Norberak edo ikaskide batek hitzak bereiztean egindako errakuntzak identifikatzea.
- 205. Norberak edo ikaskide batek letra larriak erabiltzean egindako errakuntzak identifikatzea.
- 206. * h letra eguneroko hitzetan (mahaia, ahoa, hanka ...) zuzen erabiltzea.
- 207. Maisuak edo maistrak hala eskaturik, norberak bere testuak berrikustea ortografia akatsak zuzentzeko.
- 208. Zalantzak sortzen dituzten hitzen ortografiaz galdetzea.

Aditz aldiak bereiztea: orainaldia, iraganaldia eta geroaldia.

ADIERAZLEAK

- 209. Eskolan erabiltzeko testu batean iraganaldiko aditz formak zein diren identifikatzea.
- 210. Eskolan erabiltzeko testu batean orainaldiko aditz formak zein diren identifikatzea.
- 211. Eskolan erabiltzeko testu batean geroaldiko aditz formak zein diren identifikatzea.
- 212. Testu batean onomatopeia hitzak ("miau", "kuku", "ñir-ñir", "zirri-zarra", "tripus-trapus"...) azpimarratzea.

6. KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (lan errazak egiten ikasteko tresna modura) erabiltzen hastea.

ADIERAZLEAK

- 213. Testuak prozesatzeko programa bateko dokumentu bat irekitzea ordenagailuan (programa horren lasterbidea mahaigainean egonen da).
- 214. Idazki bateko hitzak aldatzea: testuaren erdialdean dagoen hitz bat ezabatzea, letra larri bat jartzea ...
- 215. Programa erraz batean egindako dokumentu bat irakasleak aurretik esandako karpeta batean gordetzea.
- 216. Testu laburrak idaztea, ziklo honetarako berariaz sortutako testu prozesadore bat erabiliz.
- 217. Idazkia inprimatzea.

Hezkuntza programa errazak eduki sekuentziatuetan erabiltzea.

ADIERAZLEAK

- 218. CD-ROM bat erabiltzea ipuin bat, abesti bat, olerki bat ... entzuteko.
- 219. Bideoa erabiltzea ipuin bat, abesti bat, olerki bat... entzun eta ikusteko.
- 220. Urrutiko agintea erabiltzea abian jartzeko, gelditzeko, atzera egiteko eta aurrera egiteko.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia erabiltzeko interesa.

ADIERAZLEAK

- 221. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia erabiltzeko jakin-mina izatea: galdetzea, argibideak eskatzea ...

BIGARREN ZIKLOA

1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Komunikazio egoerak. Komunikazioan elkarreragina sortzeko egoerak, berezkoak edo gidatuak, solaskide ezagunekin, hainbat asmorekin eta ordena espazial, kronologiko edo logiko bati segituz. Ahozko iruzkina.

ADIERAZLEAK

1. Ikasgelan ahoz eman ohi zaizkien jarraibideak segitzea zalantzarik izan gabe: arreta izatea, materiala prestatzea, taldekatzea ...
2. Baimena eskatzeko formularik erabilienak erabiltzea: "Mesedez", "Faborez", "Utziko didazu?" ...
3. Proposamenak egitea: laneko gaiak, lan-jardunbidea, etab.
4. Eskola edo kirol gertaera edo jarduera bat kontatzea denbora sekuentziaren arabera: hasieran, gero, bukaeran, eta aldi berean ematen diren ekintzetan.
5. Ikasgelan eskolako esperientzia bat kontatzea espazioan ordenaturik eta egoerak konparatuz: barnerago-kanporago, gorago-beherago, hurbilago-erdialdean-urrunago.
6. Ikaskideei gonbitak egitea: urtebetetzeak, ikasgelako azalpenak, antzezlanak ...
7. Jarduerak planifikatzea txangoetan, ludotekan, eskolaz kanpoko jardueretan ...
8. Zerbait hartzeko, ikasgelatik ateratzeko ... baimena eskatzea, beti eta zuzentasunez.
9. * Talde lana hobetzeko iradokizunak egitea.
10. Ikaskideen jarrera okerrezez kexatzea.
11. * Jarduteko modua justifikatzea.
12. ** Elkarrizketan aritzea honako hauek kontuan harturik: hitz egiteko hurrenkera, solaskidearen hitz egiteko tokiari errespetua izatea eta mintzaeraren oinarritzko ildoak.
13. Hurbileko gai bati buruzko iritzia ematea: ikasgelaren funtzionamendua, ariketa baten zailtasunak, jolasaldien antolaketa ...
14. * Pertsonaren eta familiaren esparruari dagokionez, beste arlo batzuetan landutako gaiei buruz iritzia ematea: uraren zikloa, zaborren birziklapena, kutsadura, energia ...

Komunikaziorako estrategiak eta arauak. Parte-hartzea. Azalpen argia. Entzutea. Hitz egiteko txanda errespetatzea. Mezua berriz formulatzea. Hitzezko mezuak eta hitzezkoak ez direnak ulertzea eta adieraztea. Gainerako ikaskideen esperientziei, iritziei eta ezagutzei errespetua izatea.

ADIERAZLEAK

15. * Bileretan hitza maiz hartzea, gogotik eta ulertzeko moduan.
16. Keinu adierazkor ohikoenak zuzen erabiltzea: "zaude lasai", "jar zaitetz", "goazen" ...
17. * Esaldi bat modu bat baino gehiagotan formulatzea ulertu dela ziurtatzeko.
18. Hitz egitea erritmo egokiz eta ongi ahoskatuz.

19. Solasgai berari eustea, taldeko kideentzat esanguratsua eta interesekoa den haietan.
20. Adi egotea taldeko norbait hitz egiten ari denean: ez distraitzea, elkarrizketa ez oztopatzea, jarduera ez galaraztea.
21. Aurkako iritziak onartzea eta norberak bere erreakzioak kontrolatzea: ez du oihurik egiten, ez ditu besteak zapaltzen, solaskideak bukatu arte itxaroten du ...
22. ** Gainerakoen iritziengatik, ezagutzengatik eta esperientziengatik interesa erakusten du: galdetu, argitzea eskatu ...

Ahozko testuak produzitzea eta ezagutzea. Egoera, nahi edo esperientzia pertsonalak kontatzea. Pertsonen, animalien, objektuen eta tokien deskribapen errazak. Zerrendatzeak. Informazioa eskatu eta ematea. Informazio laburrak. Kortesiako eta giza-harremanetarako formulak. Kontzeptuen definizioak egiten hastea. Ikasleak ezagutzen dituen pertsonen elkarrizketak egitea. Ezagutzak azaltzea. Irratiko eta telebistako programen simulazioa.

ADIERAZLEAK

23. Hurbileko pertsona bat bere ezaugarri psikologiko aipagarrienekin (begikotasuna, genioa ...) deskribatzea.
24. ** Ikaslea ikusten ari den pertsonaia aldrebes bat (bi aurpegiko pertsona bat, asto belarriak eta zortzi begi dituen ...) deskribatzea, beste ikasle batek marraz dezan.
25. Ikasleak bere logela deskribatzea, espazioan ordenatuta (ezker-eskuin, gora-behera, alde batera-beste aldera ...) eta oinarrizko elementuak izendaturik.
26. Bere familiako kideak deskribatzea berriki ateratako argazki batez lagunduta.
27. Gutxienez bost elementu zerrendatzea: kirol olinpikoak, gorputz atalak ...
28. * Gutxienez zortzi elementu zerrendatzea: kirol olinpikoak, gorputz atalak ...
29. ** Gutxienez hamabi elementu zerrendatzea: kirol olinpikoak, gorputz atalak ...
30. Etxeko lanen arloko bost ekintza zerrendatzea, gutxienez (aditzak).
31. * Etxeko lanen arloko zortzi ekintza zerrendatzea, gutxienez (aditzak).
32. ** Etxeko lanen arloko hamabi ekintza zerrendatzea, gutxienez (aditzak).
33. Izaki bizidun baten bost tasun zerrendatzea, gutxienez: pertsonaia ospetsu bat, herriko edo hiriko ezagun bat, film bateko animalia bat ...
34. * Izaki bizidun baten zortzi tasun zerrendatzea, gutxienez: pertsonaia ospetsu bat, herriko edo hiriko ezagun bat, film bateko animalia bat ...
35. ** Izaki bizidun baten hamabi tasun zerrendatzea, gutxienez: pertsonaia ospetsu bat, herriko edo hiriko ezagun bat, film bateko animalia bat...
36. Prozesu errazak (uraren zikloa, gazta egitea, aparatu baten funtzionamendua game boy), etab. azaltzea ordena logikoari jarraikiz.
37. Telebistan edo irratian entzundako berri labur bat gainerako ikaskideei leialki kontatzea.
38. * Telebistan edo irratian entzundako berri labur bat gainerako ikaskideei leialki eta xeheki kontatzea.

- 39. Irakurritako ipuin bat ikaskideei kontatzea, testuaren oinarritzko egitura errespetatuz.
- 40. Kontakizun bateko orainaldiko, iraganaldiko eta geroaldiko aditz formak zuzen erabiltzea.
- 41. Agurtzeko ohiko moduak erabiltzea: "Eguerdi on" "Baita zuri ere", "Zer moduz?", "Ongi, eta zu?"
- 42. Kortesiako ohiko formak erabiltzea: "Nola ez ba!", "Ez bazaizu inporta"...
- 43. Haserrea erakusteko formarik ohikoenak erabiltzea: "Bai horixe", "Zaude isilik", "Seguru?", "Ez da izango", "Pentsatzea ere!"...
- 44. * Hipotesiak egiteko formarik ohikoenak erabiltzea: "beharbada", "agian", "seguruenik", "baliteke"...
- 45. Irakasleak emandako mezuak (mandatuak, abisuak, aginduak, kontsignak ...) leialki errepikatzea.
- 46. Ikaslearen adinari beti egokitzen zaizkion ahozko aginduak betetzea.
- 47. Egin beharreko lana nola egin behar den argi ez dagoenean, ulertu ez diren puntuez galdetzea irakasleari edo ikaskideei.

Testu literarioak prosan edo bertsoan sortzea. Bertsolaritzaren alderdi ludikoa.

ADIERAZLEAK

- 48. Bertsoaren edo koplaren lehen lerroa emanik, konposizioa osatzea, neurri eta errima egokiz eta irakasleak lagundurik.
- 49. * Bertsoaren edo koplaren lehen lerroa emanik, konposizioa osatzea, neurri eta errima egokiz eta irakasleak lagundu gabe.
- 50. Biko errimatu baten oina emanik, errima errespetatuz zuzen bukatzea.
- 51. * Biko errimatu baten oina emanik, errima eta neurria errespetatuz zuzen bukatzea.

Ahozko testuak (kontatzekoak, informazioa ematekoak eta konbentzitzekoak) ulertzea. Testuaren zentzu globala. Informazio garrantzitsuak eta ez-garrantzitsuak identifikatzea. Hiztegia aberastea. Hitzak testuinguruaren arabera ondorioztatzea. Ahozko laburpena. Testuingurua. Komunikazioaren elementu ez-linguistikoak: jarrera eta mugimendua.

ADIERAZLEAK

- 52. Ipuin baten hasiera emanik, ipuina garatu eta bukaera koherente bat ematea.
- 53. * Ipuin tradizional bat kontatzea eta bukaera ezberdin bat ematea.
- 54. Errimaren hitzak (oinak) ezkutuan dituen bertsoa edo koplak emanik, x+2-eko zerrenda batean identifikatzea (x = bilatzen diren hitzak).
- 55. Azken hitza kendu zaion bertsoa edo koplak emanik, zuzen osatzea.
- 56. Aurretik entzundako narrazio testu bati buruzko galderei erantzutea.

57. Aurretik entzundako informazio testu bati buruzko galderei erantzutea.
58. * Kontzientziatze edo merkataritza kanpaina bateko eslogana emanik, mezuaren zentzu osoari buruzko galderei zuzen erantzutea.
59. * Adinari egokitutako testua entzun ondoren, taldeko ikaskideei ahoz laburtzea.
60. Esaldi bat sortzea hitz bat erabiliz (hitz horren esanahia zein den berriki jakin dute).
61. * Esaldi bat sortzea hitzak erabiliz (hitz horien esanahia zein den berriki jakin dute).
62. Narrazio bateko pertsonaien ezaugarriak zein diren identifikatzea.
63. Narrazio baten gertaerak espazioan eta denboran zuzen kokatzea.
64. * Entzundakoa kontatzerakoan, entzunaldian ikasi dituzten hitz berriak zuzen erabiltzea.
65. * Irakurritakoa kontatzerakoan, irakurketan ikasi dituzten hitz berriak zuzen erabiltzea.
66. Hitz ezezagunen esanahia beren testuinguruarengatik identifikatzea (hiru aukera) (marrazkiak, definizioak ...).
67. Testuan agerturiko hitz baten esanahiari buruzko hipotesiak egitea.
68. Ahozko diskurtsoarekin batera gorputz-keinu egokiak egitea (eskuak, besoak, begiak ...).
69. Ipuin bat kontatzea ipuinaren oinarritzko egitura errespetatuz: hasierako egoera -oreka haustea -korapiloa-amaiera-egoera berria.
70. Txiste laburrak ordena egokian kontatzea, bukatu arte.
71. Lelo bat errepikatzea ordenari eutsiz.
72. * Istorioak kontatzea irakurri gabeko komiki bateko biñetetatik abiatuz.
73. Naturako kasu harrigarriekin (Camille hartza, Ness lakuko munstroa, estolderietako krokodiloak ...) istorioak asmatzea eta kontatzea, analogiaz.
74. Testu batean bereiztea informazio garrantzitsua eta garrantzitsua ez dena.

Ikaslearen interesa eta irudimena pizten duten testu labur eta errazak entzutea eta erreproduzitzea. Abestiak, koplak eta olerkiak doinu egokiz errezipitatez. Ahoskera egokia, baita euskararen z eta s fonemena ere. Ahozko testuengatiko gustua izatea.

ADIERAZLEAK

75. Irakasleak erakutsitako ilustrazio bateko bi esaldi zail samar esatea: "zuhaitzaren atzean dagoen mutila ..."
76. Guztiok erabiltzen ditugun objektuen definizio errazak egitea: intxaur-hauskailua, garbigailua, xaboia ...
77. * Elkarrizketa labur bat egitea ikastetxeko pertsona ezagun batek (espezialista batek, zuzendariak, etxezainak ...) egiten duen lanaren gaineko informazioa lortzeko.
78. * Zikloko beste arlo batzuetan edo jardueretan eskuratutako ezagutzak gainerako ikaskideei azaltzea, argi eta koherenteki.
79. Ikaskideen aurreko jardueretan naturaltasunez hitz egitea: bideoan grabatutako TBKO programen simulazioak: jakintza lehiaketak ("Cesta y puntos", "Un, dos, tres"), iragarkiak, Betizu ...

- 80. * Trebetasunez hitz egitea hartzailea parean izan gabe: telefonoko simulazioak, ikastetxeari buruzko albiste saio bateko grabazioak, irtenaldien programa, eskolaz kanpoko jardueren zerrenda, askotariko berriak ...
- 81. Ikasgelan landutako olerki bat (bertso luzea, gutxienez lau lerrokoa) behar den intonazioz erreztatzea.
- 82. * Ikasgelan landutako olerki bat (bertso luzea, gutxienez sei lerrokoa) behar den intonazioz erreztatzea.
- 83. ** Ikasgelan landutako olerki bat (bertso luzea, gutxienez zortzi lerrokoa) behar den doinua erreztatzea.
- 84. s, z eta x soinuetako bat duten hitzak egoki ahoskatzea.
- 85. * s, z eta x soinuetako gutxienez bi dituzten hitzak egoki ahoskatzea.
- 86. Kantuak edo formulak erreztatzea sokasaltoan aritzeko, ezkutaketan ibiltzeko ...
- 87. Irakasleari eskatzea ahozko testu harrigarriak edo bitxiak kontatzeko.
- 88. Ikasgelako jarduera berezkoetan gogotik parte hartzea.

Ongi hautaturiko ahozko testu laburrak buruan hartzea.

ADIERAZLEAK

- 89. Adinari egokitutako asmakizunak eta aho-korapiloak erreproduzitzea, trebetasunez.

Antzeztea. Adinari egokitutako testuak antzeztea, erreztatzea eta adierazkortasunez irakurtzea.

ADIERAZLEAK

- 90. Gutxienez hiru aho-korapilo erraz samar erreztatzea.
- 91. * Gutxienez bost aho-korapilo erraz samar erreztatzea.
- 92. ** Gutxienez zazpi aho-korapilo erraz samar erreztatzea.
- 93. Lehen zatia emanik, gutxienez lau atsotitz zuzen bukatzea.
- 94. * Lehen zatia emanik, gutxienez sei atsotitz zuzen bukatzea.
- 95. ** Lehen zatia emanik, gutxienez zortzi atsotitz zuzen bukatzea.
- 96. Gutxienez 40 hitzeko olerki bat buruz erreztatzea.
- 97. * Gutxienez 60 hitzeko olerki bat buruz erreztatzea.
- 98. ** Gutxienez 80 hitzeko olerki bat buruz erreztatzea.
- 99. * Ikaslearen adinari egokitutako antzezanak buruan hartzea eta errepikatzea.
- 100. Testua indartzea intonazio egokia erabiliz.
- 101. Ikasleak bere papera (rola) interpretatzea keinu adierazgarrien eta mugimenduen laguntzaz.

- 280. Azalpen testuetako adibideak jartzea, beste irakasgai batzuetako ikasliburuetan agertzen direnak.
- 281. * Testu bat zergatik den azalpenezkoa askitasunez justifikatzea.
- 282. Hainbat aukeraren artean instrukzio testu bat identifikatzea.
- 283. Instrukzio testuen adibideak jartzea, ikasgeletan egon ohi diren foiletotan, aldizkarietan eta inprimatutako gainerako materialean (karteletan, jarraibide orrietan, erabilera eskuliburuetan, joko jarraibideetan, ikasgelako arauetan, simulakroetan ...) agertzen direnak.
- 284. * Testu bat zergatik den instrukziozkoa askitasunez justifikatzea.
- 285. Hainbat testuren artean argudio testu bat identifikatzea.
- 286. * Testu bat zergatik den argudiozkoa askitasunez justifikatzea.

Kohesio gailuak: testu-markatzaileak, anafarak.

ADIERAZLEAK

- 287. "Bestalde", "izan ere", "gainera"... testu-markatzaileak ezagutzea.
- 288. * Testu batean "hura", "horiek", "honetan", "hor", "hantxe", "horregatik"... anafarak ezagutzea.

Deklinabidea. Kasu mugagabea.

ADIERAZLEAK

- 289. Testu batean kasu mugagabeak azpimarratzea.
- 290. * Bokalez bukatutako hitzetan plurala eta mugagabea bereiztea.
- 291. Mugagabea erabiltzen den 2 adibide desberdin jartzea.
- 292. * Mugagabea erabiltzen den 3 adibide desberdin jartzea.
- 293. ** Mugagabea erabiltzen den 4 adibide jartzea.
- 294. * Galdera partikula ohikoen (zer, zein, zenbat) ondoren, forma mugagabea erabiltzea.

Ortografia. Ortografiako oinarriko arauen erabilera. Puntuazio-zeinuak. Ortografia zaileko hitzak kontsultatzeko ardura.

ADIERAZLEAK

- 295. Norberak edo ikaskide batek egindako ortografia errakuntzak identifikatzea.
- 296. * h letra zuzen erabiltzea.
- 297. Norberak bere idazkiak berrikustea ortografia akatsak zuzentzeko.
- 298. ** Norberak bere idazkiak berrikustea koherentzia eta kohesio akatsak zuzentzeko: puntuazioa, ideien ordena logiko eta tenporala, bukaera, testu-markatzaileak ...
- 299. Puntuazio-zeinuak zuzen erabili eta egoki jartzea.
- 300. Aurkaritza partikulekin (ordea, baina, aldiz ...) koma zuzen erabiltzea.
- 301. * Seme-alabak, barra-barra, plisti-plasta... motako hitz elkartuetan marratxoak zuzen erabiltzea.

Maizenik erabiltzen diren aditz trinkoak jokatzea. Aditz perifrastikoak eta trinkoak bereiztea. Aditz aspektua: bukatua eta bukatugabea.

ADIERAZLEAK

- 302. Egongela, nekaezin, gaitzetsi, zurgin, gelakide, azpiegitura, lauburu... motako hitz elkartuak zuzen idaztea.
- 303. Etorri, joan, egon, ibili aditzen indikatiboko orainaldiko eta iraganaldiko paradigma osatzea.
- 304. * Objektua singularrean duten aditzen (jakin, ekarri, eduki, eraman) indikatiboko iraganaldiko eta orainaldiko paradigma ezagutzea.
- 305. ** Objektua pluralean duten aditzen (jakin, ekarri, eduki, eraman) indikatiboko iraganaldiko eta orainaldiko paradigma ezagutzea.
- 306. Testu batean aditz trinkoak eta perifrastikoak kolore desberdinarekin bereiztea.
- 307. ** estu bat osatzerakoan aditz aspektu zuzena erabiltzea: eramaten dugu/daramagu, idazten du/idazten ari da, etortzen da/etorriko da.
- 308. Testu batean forma alokutiboak identifikatzea azpimarraren bidez.

Perpaua manipulatzeko zabalpenak, ezabaketak eta ordena aldaketak eginez.

ADIERAZLEAK

- 309. Izen sintagma zuzen zabaltzea.
- 310. ** Perpau bakun batean elementu bat ordezkatzeko (subjektua edo objektu zuzena) erlatiboaren esaldi batengatik.

- 3 1 1 . ** Perpaus elkartu batetik bi perpaus bakun ateratzea.
- 3 1 2 . ** Bi perpaus bakunetatik perpaus elkartu bat ateratzea.

6. KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia ikasteko tresna modura erabiltzea.

ADIERAZLEAK

- 3 1 3 . Letrak, zenbakiak eta zeinuak teklatuan non kokatzen diren ezagutzea.
- 3 1 4 . Testu prozesadore baten (Worden edo antzeko baten) zuzentzaile ortografikoa erabiltzea testu bat idazteko eta aldatzeko.
- 3 1 5 . Testu bati formatua ematea: orrialdearen, letra motaren, lerro-tartearen, kosken (sangrien), buleten ... konfigurazioa.
- 3 1 6 . Artxiboko irudi bat leku batean txertatu eta egokitzea.

Hezkuntza programak erabiltzea.

ADIERAZLEAK

- 3 1 7 . CD-ROM bat erabiltzea (eta hala egin behar balitz, instalatzea) arloko edukiak lantzeko.
- 3 1 8 . Hiztegi eta entziklopedia elektronikoak (Elhuyar, 3000 hiztegia, Sinonimoen hiztegia, Harluxet, Planeta ...) erabiltzea.

Informazioa Interneten bilatzea.

ADIERAZLEAK

- 3 1 9 . Aurretik gai bat emanik, Interneten gehien usatzen diren bilatzaileak (Google, Aurki ...) erabiltzea.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia lan-tresna modura erabiltzeko interesa izatea. Hizkuntza zuzen erabiliko da.

ADIERAZLEAK

- 3 2 0 . Ordenagailuko dokumentu bat disketean grabatzea.

ADIERAZLEAK

- 3 2 1 . Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia erabiltzeak dituen abantailak ezagutzea.
- 3 2 2 . * Mezularitza elektronikoko programa bat erabiltzea (oinarrizko mailan): mezuak bidali eta hartzea, mezu berriak idaztea, mezuak irakurtzea, mezuei erantzutea.



MaTEMaTIKa adIERazLEak

LEHEN zIKLOa

1. ZENBAKIAK ETA ERAGIKETAK	67
▪ Zenbaki arruntak.	67
▪ Buru-kalkulua. Ahozko produkzioa (ikusizko sostengurik gabe).	68
▪ Buru-kalkulua (ikusizko sostenguarekin).	69
▪ Kalkulu algoritmikoa.	70
▪ Eragiketak.	72
2. NEURRIAK	73
▪ Luzera.	73
▪ Masa.	74
▪ Edukiera.	75
▪ Dirua.	75
▪ Denbora.	76
3. FORMA GEOMETRIKOAK ETA ESPAZIOKO KOKAPENA	76
▪ Geometria.	76
▪ Espazioko orientazioa.	77
4. INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA	78
▪ Oinarrizko estatistika.	78

BiGARREN zIKLOa

1. ZENBAKIAK ETA ERAGIKETAK	79
▪ Zenbaki arruntak.	79
▪ Frakzioak ikasten hasia.	80
▪ Zenbaki hamartarrak ikasten hasia.	80
▪ Batuketaren eta kenketaren algoritmoak.	81

Biderketaren eta zatiketaren algoritmoak.	82
■ Problemak ebaztea.	85
- Problema aritmetiko sinpleak.	85
- Problema aritmetiko konbinatuak.	86
- Zenbaketa sistematikoko problema errazak.	87
2. NEURRIAK	87
■ Luzera.	87
■ Masa.	88
■ Edukiera.	89
■ Denbora.	89
■ Dirua.	90
3. FORMA GEOMETRIKOAK ETA ESPAZIOKO KOKAPENA	90
■ Geometria.	90
■ Espazioko orientazioa.	92
4. INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA	93
■ Oinarrizko estatistika.	93

HIRUGARREN ZIKLOA

1. ZENBAKIAK ETA ERAGIKETAK	94
■ Zenbaki arruntak.	94
■ Frakzioak.	95
■ Zenbaki hamartarrak.	96
■ Frakzioak, hamartarrak eta portzentajeak.	97
■ Buru-kalkulua.	98
■ Kalkulu algoritmikoa.	99
■ Kalkulagailuaren erabilera.	101
■ Problemak ebaztea.	101
- Problema aritmetiko konbinatuak.	101
- Zenbaketa sistematikoko problemak.	102
- Datu frakzionarioak edo portzentajezkoak dituzten problemak.	103
- Indukzioaren (orokortzearen) bidez ebazten diren problemak.	103

- Arrazoibide logikoen bitartez ebazten diren egoerak eta problemak.	104
2. NEURRIAK	104
■ Magnitudeak eta neurri-sistemak.	104
3. FORMA GEOMETRIKOAK	106
■ Geometria.	106
■ Espazioko orientazioa.	109
4. INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA	110
■ Oinarrizko estatistika.	110

OHARRA: Izar bat edo bi daramatzaten adierazleak,
sakontze maila sakonago bati dagozkio.



Lehen zikloa

1. ZENBAKIAK ETA ERAGIKETAK

Zenbati arruntak.

ADIERAZLEAK:

1. Eguneroko bizitzan zenbaki arruntak zein egoeratan erabiltzen diren jakitea: zenbatzeko, zerrendatzeko, identifikatzeko, ordenatzeko ...
2. Benetako objektuak edo marraztutako objektuak zenbatzea:
 - Gutxi izan eta lerrokatu gabe daudenean.
 - Hiru dimentsioko eraikuntzen osagai direnean (zati bat ezkutuan dutelarik).
 - Asko direnean (hamarnaka multzokatu ...).
3. Objektuek espazioan duten kokalekua aldatuta ere zenbaketaren emaitza ez dela aldatzen jabetzea eta hura justifikatzea.
4. Ehunekoan, hamarrekoan eta unitateen arteko baliokidetzak ezartzea.

$$1E = 10H = 100U \quad 4E = 40H = 400U \quad 12H = 120U$$
5. Zifrak eta zenbakiak bereiztea.
 - 516 "zenbakiak" hiru "zifra" ditu.
6. Zifren posiziozko balioa identifikatzea 1.000tik beherako zenbakietan.
 - 456 zenbakian, 5 zifrak 50 balio du. 546 zenbakian, 5 zifrak 500 balio du.
 - 456 zenbakian hamarrekoetako zifra 5 da, baina 456 zenbakiak 45 hamarreko ditu.
7. 1.000tik beherako zenbakiak batuketa moduan deskonposatzea, haien zifren posiziozko balioari erreparatuta.

$$769 = 700 + 60 + 9$$
8. 1.000tik beherako zenbakiak irakurtzea.
9. Diktaketan 1.000tik beherako zenbakiak idaztea
10. Bi zifraz emandako zenbakiak letraz idaztea eta alderantziz.
11. 1.000tik beherako edozein zenbakiren aurrekoa eta ondokoa esan edo idaztea.
12. * Emandako zenbakien hurbilenean hamarrekoa eta ehuneko esatea.

$$314 \quad 310 / 300 \quad 278 \quad 280 / 300 \quad 582 \quad 580 / 600$$
13. Lehenbiziko hamar zenbakiei dagozkien ordinalak erabiltzea, eta posizioa adierazteko terminoak ere bai (azkena, azkenaurrekoa, aurrekoa, atzeko hurrena, ondoz ondokoak...), zerrenda zenbakidunetan edo bilduma ordenatuen deskripzioetan.
14. Zenbakien zerrenda batean zenbaki bikoitiak eta bakoitiak bereiztea. Zergatik diren bikoitiak edo bakoitiak azaltzea.
15. * Zenbakien zerrenda batean zenbaki kapikuak bereiztea. Zergatik diren kapikuak azaltzea.
16. 1.000tik beherako 4 edo 5 zenbakiren zerrenda ordenatzea, < edo > zeinuak bakarrik erabiliz.

17. * Hiru zenbaki entzunda, zein den handiena eta zein txikiena esatea.
18. * Zenbakizko zuzen graduatuan zenbakiak kokatu eta tartekatzea.
19. * Zenbakiak idaztea, emandako baldintzak betez.
- Hiru zifra eduki behar ditu / bikoitia izan behar du / zifren baturak 9 izan behar du / 500 baino handiagoa izan behar du ...
 - 400 baino handiagoa izan behar du / zifra guztiak bakoitiak eduki behar ditu / zifretako bi berdinak eduki behar ditu ...
20. ** Zenbatze jarduera errazak egitea.
- Zenbat aldiz agertzen da 2 zifra 1 eta 50 bitarteko zenbakietan?
 - Zenbat dira hiru zifrako zenbaki kapikuak?
 - Hiru zifra emanda (3, 4, 9 edo 5, 5, 8), haiekin osatzen ahal diren zenbaki guztiak idatzi eta ordenatzea.

Buru-kalkulua. Ahozko produkzioa (ikusizko laguntzarik gabe).

ADIERAZLEAK:

21. Diktatutako zenbakiekin honelako batuketak egitea:
- Zifra bateko bi zenbaki.
 - * Zifra bateko hiru zenbaki.
 - Bi zifrako zenbaki bat eta zifra bateko beste bat.
 - * Hiru zifrako zenbaki bat eta zifra bateko beste bat.
 - Bi zifrako bi zenbaki, horietako bat hamarreko osoa delarik.
22. Diktatutako zenbakien artean honelako kenketak egitea:
- Zifra bateko bi zenbaki.
 - Bi zifrako zenbaki bat eta zifra bateko beste bat.
 - * Bi zifrako bi zenbaki, horietako bat hamarreko osoa delarik.
23. Diktatutako hamarreko edo ehuneko osoen artean honelako batuketak edo kenketak egitea:
- 50 (+/-) 30 60 + 70 600 (+/-) 200 120 - 70
24. Emandako zenbakitik abiatuta, goranzko edo beheranzko serieak egitea:
- 2ko kadentziarekin
 - 10eko kadentziarekin
 - * 3ko kadentziarekin
25. Emandako zenbakiaren azken zifra 0 edo 5 izanik, goranzko eta beheranzko serieak egitea 5eko kadentziarekin.
26. Emandako zenbakia bi batugairen batura gisa adierazteko modu bat baino gehiago bilatzea:
- Emandako zenbakiak zifra bat duenean.
 - Emandako zenbakiak bi zifra dituenean.

27. Emandako zenbakia kendura gisa adierazteko modu bat baino gehiago bilatzea:
 - Emandako zenbakiak zifra bat duenean.
 - * Emandako zenbakiak bi zifra dituenan.
28. 2, 3, 4 eta 5 zenbakiak biderkatzeko taulak buruz jakitea eta ulertzea.

Buru-kalkulua (ikusizko sostenguarekin).

ADIERAZLEAK:

29. Honelako batuketak egitea:
 - Zifra bateko hiru zenbaki.
 - * Zifra bateko lau zenbaki.
30. Hamarreko eta ehuneko osoekin honelako batuketak egitea:
 $80 + 40$ $740 + 200$ $350 + 70$
31. Hamarreko eta ehuneko osoekin honelako kenketak egitea:
 $140 - 60$ $520 - 200$
32. Emandako zenbakitik abiatuta goranzko eta beheranzko serieak egitea 2, 3, 4 edo 5eko kadentziarekin.
33. Emandako zenbakiaren azken zifra 0 edo 5 izanik, goranzko eta beheranzko serieak egitea 10, 20, 25, 50 edo 100eko kadentziarekin.
34. * Emandako zenbaki-serieen kadentziari erreparatu eta haiek egiten jarraitzea.
35. * Bi zifrako edozein zenbakiren bikoitza kalkulatzeko erabilitako prozedura azaltzea.
36. * Bi zifrako edozein zenbakiren erdia kalkulatzeko erabilitako prozedura azaltzea.
37. * Lerroan emandako batuketak egitea. Erabilitako estrategia azaltzea.
 $43 + 9 = \dots\dots$ $37 + 25 = \dots\dots$ $136 + 43 = \dots\dots$
38. * Lerroan emandako kenketak egitea. Erabilitako estrategia azaltzea.
 $88 - 9 = \dots\dots$ $91 - 56 = \dots\dots$ $136 - 43 = \dots\dots$
39. * "Hutsuneak" dituzten batuketak edo kenketak osatzea:
 $8 + \quad = 15$; $\quad + 7 = 13$; $15 - \quad = 6$; $\quad - 4 = 9$
40. ** Honelako berdintzak nola osatzen ahal diren azaltzea:
 $23 + \quad = 25 +$
 $23 - \quad = 25 -$
41. * Tartean jarri beharreko zeinua adieraztea (< edo >), eragiketak egin gabe:
 - Honelako bi batuketaren artean:
 $85 + 46$ $85 + 49$ $93 + 58$ $93 + 56$
 - Honelako bi kenketaren artean:
 $85 - 46$ $85 - 49$ $93 - 58$ $93 - 56$

Kalkulu algoritmikoa.

ADIERAZLEAK:

42. Batuketaren osagaiak identifikatzea: batugaiak, emaitza/batura.
 43. Kenketaren osagaiak identifikatzea: kenkizuna, kentzailea eta kendura/emaitza.
 44. ** Eragiketa ahoz adieraztean, terminoak (batugaiak, kenkizuna, kentzailea, batura, kendura) ongi erabiltzea.
 45. Bi edo hiru zifraiko zenbaki batzuk batuketa egiteko moduan kokatzea.
 46. * Batugaien eta baturaren arteko erlazioak ezagutzea.

$$27 + 48 = 75; \quad 48 + 27 = 75; \quad 75 - 48 = 27; \quad 75 - 27 = 48$$

47. ** Kenketaren osagaien arteko erlazioak ezagutzea eta ahoz adieraztea, termino egokiak erabiliz.

$$75 - 48 = 27; \quad 75 - 27 = 48; \quad 27 + 48 = 75$$

48. Bi edo hiru zifraiko zenbaki batzuk kenketa egiteko moduan kokatzea.
 49. Batuketaren algoritmoa aplikatzea batugaiak bi edo hiru direlarik (emaitza 1.000 baino gutxiago izanen da).
 50. Emandako denboran batuketa kopuru jakin bat egitea.
 Adibidea: lau batuketa emanda, hiru gutxienez ongi egitea:

$$\begin{array}{r} 89 \\ + \\ \hline 76 \end{array} \quad \begin{array}{r} 572 \\ + \\ \hline 365 \end{array} \quad \begin{array}{r} 387 \\ + 53 \\ \hline 178 \end{array} \quad \begin{array}{r} 72 \\ + 258 \\ \hline 65 \end{array}$$

- 8 minutu iragan baino lehen,
- * 6 minutu iragan baino lehen.

51. * Batuketa errazak osatzea, batugaietan falta diren zifrak jarritz.

$$\begin{array}{r} 5 \\ + \\ \hline 99 \end{array} \quad \begin{array}{r} 72 \\ + \\ \hline 101 \end{array}$$

52. Algoritmoa aplikatzea gehienez hiru zifra dituzten zenbakien arteko kenketak egiteko, bururakoekin eta bururakorik gabe.
 - Bururakorik gabe.
 - * Bururakoekin.

53. Emandako denboran kenketa kopuru jakin bat egitea.

Adibidea: lau kenketa emanda, hiru gutxienez ongi egitea

$$\begin{array}{r} 73 \\ - \\ \hline 28 \end{array} \quad \begin{array}{r} 513 \\ - \\ \hline 65 \end{array} \quad \begin{array}{r} 704 \\ - \\ \hline 89 \end{array} \quad \begin{array}{r} 618 \\ - \\ \hline 249 \end{array}$$

- 8 minutu iragan baino lehen.

- * 5 minutu iragan baino lehen.

54. ** Kenketa errazak osatzea, kenkizunean edo/eta kentzailean falta diren zifrak jarritz.

$$\begin{array}{r} 7 \\ - \\ \hline 4 \end{array} \qquad \begin{array}{r} 5 \\ - \\ \hline 2 \end{array} \qquad \begin{array}{r} 4 \\ - \\ \hline 1 \end{array}$$

55. Biderketa batean (x) zeinua eta osagaiak identifikatzea: biderkagaiak, biderkakizuna, biderkatzailea, emaitza/biderkadura.

56. Biderketa bat batugai berdinen arteko batuketa gisa adieraztea eta alderantziz.

57. Biderketaren trukakortasuna ezagutu eta aplikatzea.

58. * Biderketa errazak bi dimentsioko grafikoan bidez adieraztea.
Adibidea: 4 x 5 Lau bider bost. Lau aldiz bost. (5 x 4 laukiz osatutako karratua).

59. Kalkulagailuarekin zenbaki arruntak idaztea.

60. Kalkulagailua erabiliz batuketak eta kenketak egitea.

61. * Kalkulagailua (faktore konstantea) behar bezala erabiliz, zenbaki batetik abiatuta kadentzia jakineko zenbaki-serieak egitea, goranzkoak zein beheranzkoak.

62. ** Kalkulagailuarekin batuketen eta kenketen emaitzak egiaztatzea, batuketa eta kenketa kontrako eragiketak direla baliatuta.

$$176 + 89 = 265; \quad \dots - 89 = ?$$

$$176 - 89 = 87; \quad \dots + 89 = ?$$

67. Erantzuten ahal zaion galdera egoki bat egitea, elkarrekin erlazioa duten zenbakizko bi datu emanda, kenketa-batuketa egoera bati buruzkoak.
68. * Galdera bati erantzun ahal izateko behar diren datuak idaztea, ezaguna zaion kenketa-batuketa ingurune edo egoera batean.
69. * Datu multzo batetik, galdera jakin bati erantzuteko beharrezkoa ez dena bereiztea.
70. * Batuketa-kenketa eginez ebatzi behar den problema baten testua (datuak-galdera) emanda, problemako galderari erantzun ahal izateko datu osagarriren bat falta dela ohartzea.
71. Testuinguru ezagun batean, batuketa edo kenketa eginez ebatzi behar diren problema desberdinak asmatzea.
72. * Testuinguru eta eragiketa (batuketa edo kenketa) jakin batzuk emanda, eragiketa horren bidez ebatzi beharko den problema baten testua idaztea.
73. Problema baten testua eta problemako zenbakizko datuekin egin daitezkeen eragiketa batzuk (batuketak eta kenketak) emanda, problema ebazteko egin behar den eragiketa hautatzea.
74. * Problema bat ebazten saiatzeko estrategia orokorrean egin behar diren urratsak azaltzea.
- Problema ulertzea. Gai izatea problema azaltzeko, datuen esanahiaz (zer dakit?) eta galderaren esanahiaz (zer kalkulatu nahi dut?) jabetzeko.
 - Problemako datuak eta galdera erlazionatzea. Datuak eta galdera eskema batean adieraztea.
 - Eskematik ondorioztatzen den eta problema ebatziko duen eragiketa antolatu eta egitea. Problemako galderari dagokion erantzun osoa idaztea.
 - Erantzuna "logikoa" dela egiaztatzea. Problema irakurri eta egoera aztertzea, erantzuna zentzuzkoa den ala ez ikusteko.
75. Aldatze, bat-egite, konparazio eta berdintzei buruzko problemak ebaztea batuketa eta kenketen bidez, kontuan izanik berdintzei buruzko problemetan aurkituko direla zailtasun handienak, eta truke edo konbinazio kasuetan ere bai, emaitzetatik abiatu eta hasierako kantitateaz edo gertatutako aldaketaz galdetzen denean.

2. NEURRIAK

Luzera.

ADIERAZLEAK:

76. Luze/labur terminoak eta horien konparatibo eta superlatiboak ongi erabiltzea, dimentsio batean ikusten diren hiru objekturen aurrean (kartoi mehezko zerrenda estuak, listoiak, marraztutako segmentuak ... oso luzera desberdinak dituztenak).
77. Bi dimentsiotan eta horizontal ikusten diren objektuen luzera eta zabalera bereiztea (paper-orria, korridorea, mahaia, ohea ...).

78. Bi dimentsiotan eta bertikal ikusten diren objektuen altuera eta luzera bereiztea (arbela, horma, koadroa...) edo altuera eta zabalera (atea, leihoa).
79. Hiru dimentsiotan ikusten diren objektu egokien (kutxa, mahaia...) luzera, zabalera eta altuera/lodiera bereiztea.
80. Kontzeptu hauek lotzea:
 - Luze/labur kontzeptuak luzerarekin,
 - Zabal/estu kontzeptuak zabalerarekin,
 - Garai/baxu/sakon/lodi/mehe kontzeptuak altuerarekin.
81. Hiru objektu egoki (antzeko luzera, zabalera edo altuera dutenak) konparatu eta ordenatzea beren luzera, zabalera edo altueraren arabera, bata bestearen gainean edo ondoan jarriz.
82. Objektu bat espazioan kokatzeko modua aldatu arren haren luzera ez dela aldatzen ohartzea eta zergatikoa azaltzea.
83. Hurbilketaren edo enkoadraketaren bidez, objektu baten luzera adieraztea neurri naturalak erabiliz (hazbeteak/arrabeteak, oinak/urratsak) edo ezohiko neurriak erabiliz (arkatzak, folioak ...).
84. Metroa luzera neurtzeko oinarrizko unitatea dela jakitea. Zentimetroa eta kilometroa metroa baino luzera txikiagoak edo askoz handiagoak neurtzeko unitate egokiak direla jakitea.
85. Objektu jakinak neurtzeko unitate egokiena zentimetroa ala metroa den zehaztea.
86. Luzera edo distantzia egokiak neurtzea (erregelarekin, zinta metrikoarekin...) eta emaitza adieraztea, hurbilketaren edo enkoadraketaren bitartez, neurri-unitate egokia erabiliz (zentimetroa edo metroa).
87. Luzera jakineko objektuekin konparazioa eginez distantziak edo luzerak zehaztea. Adibidez: lurrean 10 cm-ko 30 baldosa dituen gela baten luzera.

Masa.

ADIERAZLEAK:

88. Objektu baten masa objektua altxatu edo arrastatzeko behar den indarrarekin -pisuarekin- lotzea.
89. Objektu batean hauteman daitezkeen ezaugarriak bereiztea: zerez egina dagoen, tamaina, bolumena/edukiera (hutsa/betea da, hutsik/beterik dago).
90. Zenbait objektu egoki haztatuz haien masak konparatzea (astunagoa/arinagoa, astunena/arinena).
91. Antzeko pisua duten bi objektu konparatzea besodun balantza erabiliz.
92. ** Antzeko pisua duten hiru objektu ordenatzea besodun balantza erabiliz (arrazoibide trantsitiboak).

- 93. * Hurbilketaren edo enkoadraketaren bidez, objektu egoki baten pisua adieraztea, besodun balantza eta ezohiko unitate patroia erabiliz.
- 94. Objektu bat espazioan kokatzeko modua aldatu arren haren pisua ez dela aldatzen ohartzea eta zergatikoa azaltzea.
- 95. Kiloa pisuak neurtzeko ohiko unitatea dela jakitea.
- 96. Zenbait objekturen pisua zehaztea pisu jakineko beste objektu batzuekin konparatuta.

Edukiera.

ADIERAZLEAK:

- 97. Ontzi desberdin batzuek edukiera handiagoa edo txikiagoa duten antzematea haien neurriei erreparatuta.
- 98. Antzeko edukiera duten bi ontzi konparatzea, edukia batetik bestera aldatuz.
- 99. ** Antzeko edukiera duten hiru ontzi ordenatzea edukiaren ontzi-aldaketan bitartez (arrazoibide trantsitiboak).
- 100. Hurbilketaren edo enkoadraketaren bidez, ontzi baten edukiera adieraztea ezohiko unitate patroia erabiliz (kikarak, edalontziak, kubileteak ...).
- 101. Ontziaren forma aldatuta ere barruan dagoen likidoaren kantitatea ez dela aldatzen ohartzea eta zergatikoa azaltzea.
- 102. Litroa edukierak neurtzeko ohiko unitatea dela jakitea.
- 103. Zenbait objekturen edukiera zehaztea, edukiera jakineko beste objektu batzuekin konparatuta.

Dirua.

ADIERAZLEAK:

- 104. Legezko txanpon eta billeteak ezagutzea.
- 105. Baliokidetasun-erlazio errazak ezartzea (euro batek 20 zentimoko 5 txanponek adina balio du, eta abar).
- 106. Bi txanpon- edo billete-multzo egoki emanda, diru-balio handiena zeinek duen kalkulatzeko.
- 107. Txanpon eta billeteen konbinazio egokia osatzea kopuru jakin bat ordaintzeko.
- 108. * 1, 2 edo 5 euro trukatzeko, mota desberdinetako txanponak erabiliz.
- 109. * 1, 2 edo 5 euro arteko atzerakoak ematea salerosketa-egoera errazetan.

Denbora.

ADIERAZLEAK:

- 1 1 0. Denboraren adierazpideak ongi erabiltzea egunean zehar egiten diren ohiko jarduerak eta ekintzak kokatu eta ordenatzeko: lehen, gero, geroago, goizean, lehen orduan, eguerdian, arratsaldean, gauean ...
- 1 1 1. Denbora neurtu eta zatitzeko unitateak ezagutzea: segundoa, minutua, ordua, eguna, astea, hila, urtea.
- 1 1 2. Astegunak, urtaroak eta urteko hilak ordenatzea.
- 1 1 3. Erlazio hauek egokiro ezartzea: hila/egunak, astea/egunak, eguna/orduak, ordua/minutuak, minutua/segundoak.
- 1 1 4. Eguneko une bereziak ordu-erreferentziekin lotzea (adierazpide digitalak edo konbentzionalak).
- 1 1 5. Egutegia erabiltzea kalkulu errazak egiteko.
- 1 1 6. Iraupen desberdinak adierazteko denbora-unitate egokia aukeratzea.
- 1 1 7. * Ordu-tegi errazak prestatu edo interpretatzea.
- 1 1 8. Ordua irakurtzea erloju digitaletan eta erloju analogikoetan (orduak, laurdenak eta erdiak).
- 1 1 9. Zenbait gertaeraren iraupena zehaztea, iraupen jakineko beste gertaera batzuekin konparatuta.

3. FORMA GEOMETRIKOAK ETA ES PAZIOKO KOKAPENA

Geometria.

ADIERAZLEAK:

- 1 2 0. Lerroak sailkatzea: zuzenak, kurbatuak, mistoak eta poligonalak. Inguruko objektuetan lerro mota horien adibideak bilatzea.
- 1 2 1. Inguruan angelu diedro eta triedroak bilatzea.
- 1 2 2. Erregela erabiltzea lerro zuzenak marrazteko eta lerroak zuzenak diren ala ez jakiteko.
- 1 2 3. * Luzera infinitua lerro zuzenaren intuiziozko kontzeptuarekin lotzea.
- 1 2 4. Puntu kontzeptua bi lerroren elkargunearekin edo planoko posizio batekin lotzea.
- 1 2 5. * Segmentu kontzeptua zuzen bateko bi punturen artean dagoen zatiarekin lotzea (luzera finituko zatia).
- 1 2 6. * Zuzenerdi kontzeptua zuzen batean finkatutako puntu baten bi aldeetara dauden zatietako bakoitzarekin lotzea (luzera infinituko zatia).
- 1 2 7. Lerro irekiak eta itxiak bereiztea.
- 1 2 8. Muga, barnealdea eta kanpoaldea bereiztea lerro itxi batean.

- 1 2 9. Irudi geometrikoaren kontzeptua lerro itxi baten mugarekin eta barnealdearekin lotzea, figura lauetan.
- 1 3 0. Figura geometriko baten forma eta tamaina bereiztea.
- 1 3 1. Figura batzuen artetik poligono direnak bereiztea.
- 1 3 2. Alde eta erpin kontzeptuak bereiztea eta ongi erabiltzea. Poligono jakin batek zenbat alde edo erpin dituen esatea.
- 1 3 3. Triangeluak eta koadrilateroak marraztu edo egitea (geoplanoaren gainean, mekanoko hagatxoekin, sokekin, txotxekin ...).
- 1 3 4. Zirkunferentzia eta zirkulua bereiztea.
- 1 3 5. Inguruko objektuetan forma zirkularrak identifikatzea.
- 1 3 6. * Inguruko objektuetan edo marrazkietan, simetria-ardatzen bat duten figurak bereiztea. Figura jakin batek dituen simetria-ardatzak erakutsi edo marraztea. Erakutsitako lerroak zergatik diren simetria-ardatz azaltzea eta egiaztatze saioak egitea (ispilua, tolestaketak ...).
- 1 3 7. ** Simetria-ardatz bat eta figura simple bat emanda, figura simetrikoa marraztea.
- 1 3 8. Gainazal lauak eta kurbatuak bereiztea.
- 1 3 9. Inguruko objektuetan gainazal lauak eta kurbatuak identifikatzea.
- 1 4 0. * Gorputz geometrikoaren kontzeptua gainazal itxi baten mugarekin eta barnealdearekin lotzea.
- 1 4 1. Gorputz geometriko poliedrikoak besteetatik bereiztea eta zergatik diren poliedrikoak azaltzea.
- 1 4 2. * Inguruan forma poliedrikoak, zilindrikoak, esferikoak eta konikoak ezagutzea.
- 1 4 3. Prisma zuzen batzuen artetik kuboak bereiztea.
- 1 4 4. Kuboan eta piramidean aurpegiak, erpinak eta ertzak bereiztea.
- 1 4 5. * Kubo edo piramide baten aurpegiak, erpinak eta ertzak zenbatzea.
- 1 4 6. ** Kuboaren ezaugarri geometrikoak azaltzea.
- 1 4 7. ** Gorputz geometrikoak egin edo kopiatzea, pieza egokiak eskura izanik.

Espazioko orientazioa.

ADIERAZLEAK:

- 1 4 8. Gorputzaren zatiak non dauden adieraztea, aurrean/atzean, goian/behean eta eskuinean/ezkerrean deskribatzaileak erabiliz.
- Behean, eskuinean eta aurrean dago. Zer izan daiteke?
 - Goian dago, ezkerrean, ez aurrean ez atzean. Zer ote da?
- 1 4 9. Inguruko objektu egokien kokapena deskribatzea erreferentetzat norberaren gorputz-eskema harturik: nire aurrean/atzean, gainean/azpian, nire eskuinean/ezkerrean dago.

- 1 5 0 . Objektu bat edo norbera leku egokian kokatzea objektu hori aurrean edo atzean, eskuinean edo ezkerrean egon dadin.
- Paperontziak zure aurrean egon behar du (kokatzeko modu infinituak).
 - Paperontziak zure atzean eta eskuinean egon behar du (kokatzeko modu infinituak).
- 1 5 1 . Aginduak betetzea psikomotrizitateko ariketa desberdinetan: aurrera/atzera, gora/behera, eskuinera/ezkerrera:
- Begiratu (atzamarraz adieraziz) eskuinera ..., behera ...
 - Egin bira-laurdena ezkererantz, bira-erdi ...
 - Ibili atzeraka, alboraka eskuinerantz ...
 - Bost pauso aurrera, hiru zure eskuinera, lau atzera ...
- 1 5 2 . Beste pertsona baten gorputz-eskema edo objektu bat erreferentzia hartuta aurrea/atzea, goia/behea, eskuina/ezkerra bereiztea.
- 1 5 3 . ** Inguruko objektuetatik zeinek dituzten aurrea/atzea, goia/behea, eskuina/ezkerra eta zeinek ez bereiztea. Adibidea:
- Zuhaitzak ez du aurre/atzerik ez eskuin/ezkerrik.
 - Semaforoak ez du eskuin/ezkerrik.
 - Autoak baditu aurrea eta atzea, eskuina eta ezkerra, goia eta behea.
 - Etxeak baditu aurrea eta atzea ...
- 1 5 4 . ** Beste pertsona batek egiten dituen mugimenduak edo birak deskribatzea: aurrerantz/atzerantz, eskuinerantz / ezkererantz.
- 1 5 5 . Bideak deskribatu edo marraztea sare koadrikulatu batean. Norabideak zortzi izan daitezke: gora / behera / eskuinera / ezkerrera, gora (behera) eta eskuinera (ezkerrera).
- 1 5 6 . * Koloretako kuboez egindako eraikuntza batean, piezen elkarrekiko kokapen erlatiboak deskribatzea.

4. INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA

Oinarrizko estatistika.

ADIERAZLEAK:

- 1 5 7 . Plantillak erabiltzea, epe jakin batean egindako behaketa sistematikoen emaitzak idazteko eta ondoren horien zenbaketa egiteko.
- * Eguraldia hamabostaldi batean.
Euria (batere ez / gutxi / asko) hilabetean.
Giroa (eguzkitsua-laino gutxi / lainotua-euririk ez / euritsua).
 - * Eskola huts egiten dutenak (zenbat mutilek / zenbat neskek) hilabetean).

158. Sarrera biko taula xumeak egitea/osatzea:
- Inkesta batean lortutako emaitza gurutzatuak idazteko/aurkezteko.
 - Unibertso bateko elementuak (adibidez, bloke logikoak) sailkatzeko, bi ezaugarri kontuan hartuta (kolorea eta forma, tamaina eta kolorea ...).
 - Ordutegiak egiteko (arloan banaketa aste batean).
159. Grafiko errazak interpretatzea (piktogramak eta barra-diagramak).
160. * Grafiko estatistikoak egitea (barra-diagramak edo piktogramak) inkesta txikiak, neurketak, gertaeren behaketak eta abarrekoak eginez lortutako emaitzekin ...

BIGARREN ZIKLOA

1. ZENBAKIAK ETA ERAGIKETAK

Zenbaki arruntak.

ADIERAZLEAK:

1. Zifren esanahia eta posiziozko balioa ezagutzea 1.000.000tik beherako zenbaki arruntetan.
 - 583.715 zenbakian 3 zifrak 3.000 balio du.
 - 583.715 zenbakian milakoetako zifra 3 da, baina 583.715 zenbakiak 583 milako ditu.
2. Gehienez 7 zifra dituzten zenbaki arrunten magnitude-ordena zehaztea.
605.712 6 ehun milako / 5.000.000 5 milioiko
3. Zenbaki arruntak irakurtzea:
 - 7 zifra artekoak.
 - * 7 zifra baino gehiagokoak.
4. ** Zenbaki-sistema hamartarraren egitura eta funtzionamendua azaltzea 6 zifra arteko zenbakietarako.
5. Gehienez 7 zifra dituzten zenbaki arruntak idaztea.
6. * Zifraz emandako zenbaki arruntak (1.000.000tik beherakoak) letraz idaztea eta alderantziz.
7. ** Zenbaki-sistema erromatarren egitura eta funtzionamendua ezagutzea.
8. * Eraikin publikoetan zenbaki erromatarrez agertzen diren datak irakurtzea (ehun arteko zenbakiak).
9. 1.000.000tik beherako zenbakiak batuketa moduan eta batuketa-biderketa moduan deskonposatzea, beren zifren posiziozko balioari erreparatuta.
$$7.834 = 7.000 + 800 + 30 + 4$$
$$7.834 = 7 \times 1000 + 8 \times 100 + 3 \times 10 + 4$$
10. Zenbaki arrunt bat emanda, hamarreko, ehuneko edo milakoen kopuru doia duen hurbilenekoa esatea edo idaztea.
39.172 39.170 / 39.200 / 39.000.
26.638 26.640 / 26.600 / 27.000
11. Lehenbiziko 30 zenbaki ordinalak erabiltzea testuinguru desberdinetan.
12. Zenbaki arruntan zerrenda batean zenbaki handiena eta txikiena identifikatzea.
13. Bospasei zenbaki arrunt ordenatzea < edo > zeinuak erabiliz.
14. Zenbakizko zuzen graduatuan zenbaki arruntak kokatu eta tartekatzea.
0 400 800 2000 8000
15. ** Ariketak egitea zenbakizko baldintza jakinak betez.
 - Lau zifra emanda, horietariko hiru erabiliz osatzen ahal diren hiru zifrako zenbaki guztiak ordenatuta idaztea. (4, 5, 7, 9 edo 5, 5, 6, 6 ...).

- Liburu baten 150 orrialdeei zenbaki bana ipintzeko zenbat zifra behar diren kalkulatzeko.
- Hiru zifrako zenbaki bikoiti guztiak aurkitzea, zifren arteko biderkadura 12 dela jakinik.

Frakzioak ikasten hasia.

ADIERAZLEAK:

16. Frakzioak irakurtzea.
17. Frakzioak idaztea.
18. Frakzioaren bi osagaiak (zenbakitzailea eta izendatzailea) identifikatzea eta bien eginkizunak jakitea.
19. Figura geometriko, adierazpen grafiko edo elementu-multzo bat emanda, frakzio jakin bati dagokion zatia zehaztea eta alderantziz.
20. Zenbakizko balioa unitatea baino txikiagoa, berdina edo handiagoa duten frakzioak identifikatzea.
21. Frakzio simple batzuk zenbakizko zuzen graduatuan kokatzea.
22. Frakzio simple baten zenbakizko balioa ondoko bi zenbaki arrunten artean kokatzea.
23. * Frakziozko kalkulu errazak interpretatu eta egitea:
 - 75 euroren $\frac{2}{5}$ $(75 : 5) \times 2 = 30$ euro.
 - 300 kromoko bilduma baten $\frac{5}{6}$.

Zenbaki hamartarrak ikasten hasia.

ADIERAZLEAK:

24. Euroen eta zentimoen arteko oinarritzko baliokidetzak ezartzea.
 - Zentimoen eta euroen arteko baliokidetzak frakzio modura eta zenbaki hamartar modura adieraztea:
 - 50 zentimo = $\frac{1}{2}$ euro = 0,50 ; 75 zentimo = $\frac{3}{4}$ euro = 0,75 euro.
 - 10 zentimo = $\frac{1}{10}$ euro = 0,10 euro.
25. Eurotan emandako prezioak ongi irakurtzea:
 - 2,45 euro / 2 euro eta 45 zentimo / 2 koma 45 euro.
26. Produktu ezagunen prezioak zenbaki hamartarretan ongi idaztea.
27. Prezioen zerrenda bat ordenatzea.
 - 0,85 euro / 2,15 euro / 2,03 euro / 1,90 euro / 1,09 euro.
28. Gauza baten prezioa euro-kopuru osoa ez denean koma erabiltzeko egindako hitzarmenaren beharra arrazoitzea. Prezioak ondoko bi zenbaki arrunten artean kokatzea:
 - 3 euro < 3,15 euro < 4 euro.

29. Prezioaren bi zatien esanahia ulertzea: zati osoarena eta zati hamartarrarena.
30. ** Prezioetan komaren atzean beti bi zifra hamartar zergatik dauden azaltzea.
31. "Komadun zenbaki" guztiak zenbaki hamartarrak direla jakitea.
32. Zenbaki hamartarretan adierazitako magnitudeen esanahia ondorioztatzea (prezioekin duten antzarengatik) eta azaltzea:
- 48,50 kg-ko pisua du / 1,62 m-ko altuera du.
 - * Pitxerrak 3,5 litro hartzen ditu / 2,5 ordu behar izan ditu.

Batuketaren eta kenketaren algoritmoak.

ADIERAZLEAK:

33. Batugai, batura, kenkizun, kentzaile eta kendura terminoak ongi erabiltzea eta elementu horien arteko erlazioak hitzez adieraztea.
34. Diktaketan zifra bakarreko hiru zenbaki entzunda, horien arteko batuketa buruz egitea.
35. Hamarreko, ehuneko eta milako osoen arteko batuketak eta kenketak buruz egitea:
- $$80 + 70 + 40 \quad / \quad 600 + 500 \quad / \quad 9.000 + 17.000$$
36. Zifra bakarreko zenbaki baten eta bi edo hiru zifrako beste baten arteko batuketa eta kenketa buruz egitea.
37. "Hutsuneak" dituzten batuketak edo kenketak buruz osatzea:
- $$240 - \quad = 160 \quad / \quad 18 + \quad = 42 \quad / \quad \quad - 35 = 70$$
- Erabilitako estrategia azaltzea.
38. Oinarrizko kadentziekin (2, 3, 5, ..., 10, 20, 25, 50, ..., 100, 200, 500, ..., 1000, 5000 ...) goranzko eta beheranzko zenbaki serieak egitea, abiapuntu egokiak hartuta.
39. * Emandako zenbaki-serieen kadentziari erreparatu eta haiek egiten jarraitzea.
40. Batuketaren algoritmoa automatizatzea, batugaiek gehienez 5 zifra dituztelarik.
41. Emandako denboran batuketa kopuru jakin bat egitea:
- Adibidez: Diktatutako hiru batuketa ongi egitea,
- $$7.389 + 615 + 2.083 \quad / \quad 48.576 + 956 + 6.849 \quad / \quad 6099 + 876$$
- 5 minutu iragan baino lehen.
 - * 3 minutu iragan baino lehen.
42. Kenketaren algoritmoa automatizatzea, kenkizunak gehienez 5 zifra dituztelarik.
43. Kendurak kalkulatzeko beste prozedura batzuk ezagutu eta erabiltzea.
44. Emandako denboran kenketa kopuru jakin bat egitea.
- Adibidez: Diktatutako hiru kenketa ongi egitea.
- $$6.034 - 2.652 \quad / \quad 5.143 - 878 \quad / \quad 87.104 - 716$$
- 5 minutu iragan baino lehen,
 - * 3 minutu iragan baino lehen.

45. * Hutsuneak dituzten batuketak eta kenketak osatzea, zenbakei falta zaizkien zifrak jarritz.

$$5 _ 4 _ + _ 5 _ 8 = 13524$$

$$\begin{array}{r} 742 _ \\ - \\ _ _ 35 \\ \hline 52 _ 6 \end{array}$$

46. Gutxi gorabeherako emaitza kalkulatzeko:

- Bost zifra arteko batugaiak dituen batuketa batean.

- 5 zifra arteko zenbakiak dituen kenketa batean.

* Gutxi gorabeherako emaitza kalkulatzeko erabilitako prozedura azaltzea.

47. Honelako berdintzetan hutsuneak betetzeko erregela ondorioztatzea:

$$23 + _ = 25 + _$$

$$23 - _ = 25 - _$$

48. Honelako batuketak buruz egiteko erabil daitezkeen prozedurak azaltzea:

$$58 + 24$$

$$37 + 95$$

$$346 + 8$$

$$459 + 13$$

49. Eragiketa hauen artean jarri beharreko zeinua adieraztea (< edo >), eragiketak egin gabe:

- Honelako bi batuketaren artean:

$$85 + 46$$

$$85 + 49$$

$$93 + 58$$

$$93 + 56$$

- Honelako bi kenketaren artean:

$$85 - 46$$

$$85 - 49$$

$$93 - 58$$

$$93 - 56$$

50. Honelako kenketak buruz egiteko erabil daitezkeen prozedurak azaltzea:

$$58 - 14$$

$$95 - 37$$

$$346 - 8$$

$$453 - 17$$

51. Kalkulagailuaz batuketak eta kenketak egitea.

52. Batuketaren eta kenketaren arteko kontrakotasuna aplikatzea kalkulagailuaren pantailan agertzen den emaitza zuzena dela egiaztatzeko, batuketa edo kenketa egiten denean.

53. Goranzko eta beheranzko zenbaki serieak egitea, kalkulagailuan eragigai konstantearen funtzioa erabiliz.

Biderketaren eta zatiketaren algoritmoak.

ADIERAZLEAK:

54. Biderketa jakin bat batugai berdinen arteko batuketa moduan edo bi dimentsioko adierazpen grafiko baten bitartez adieraztea, eta alderantziz:

$$4 \times 5 = 5 + 5 + 5 + 5 \quad \text{"Lau aldiz bost".} \quad \text{"Lau bider bost".} \quad \text{"Bakoitzeko bost".}$$

55. * Biderketaren trukitze-legea, elkartze-legea eta banatze-legea adieraztea:
 $47 \times 8 = 8 \times 47$
 $4 \times (7 \times 6) = (4 \times 7) \times 6$
 $4 \times (7 + 6) = (4 \times 7) + (4 \times 6)$; $4 \times (7 - 6) = (4 \times 7) - (4 \times 6)$
56. Zatiketa kontzeptua hainbanaketekin lotzea (banatzearekin), eta zenbaki bat beste baten barruan zenbat aldiz dagoen ikusita zerbait ondorioztatzen deneko erlazioekin ere bai (errepikatzearekin).
57. Zatiduraren esanahia zuzen interpretatzea kasu guztietan -banaketan eta errepikapenean -eta zehatz-mehatz zer adierazten digun jakitea.
58. Bi kopuru konparatzea, manipulazio-testuinguruetan edo testuinguru grafikoetan, honelako adierazpideak erabiliz: Bikoitza hirukoitza herena erdia ...
59. Honelako esapideak ulertzea eta baliokide gisa erabiltzea:
 - "(Herena) laurdena / (hiruaz) lauaz zatitu".
 - "(Hirukoitza) laukoitza / (hiruaz) lauaz biderkatu".
60. Biderketaren osagaiak ezagutu eta erabiltzea: biderkagaiak, biderkakizuna, biderkatzailea, emaitza/biderkadura.
61. Zatiketaren osagaiak ezagutu eta erabiltzea: zatikizuna, zatitzailea, zatidura, hondarra.
62. 12 zenbakirainoko biderkatze-taulak buruz jakitea.
63. * Unitateak eta hamarreko/ehuneko osoak beren artean buruz biderkatzea.
 Erabilitako estrategia azaldu eta arrazoitzea.
 30×7 / 20×100 / 20×80 / 300×5 / 500×40 / 300×600
64. Honelako zatiketak buruz egitea:
 $400 : 10$ / $800 : 20$ / $1.200 : 100$ / $24.000 : 600$
 Erabilitako estrategia azaldu eta arrazoitzea.
65. * Biderketaren trukitze-legea aplikatzea, batuketari eta kenketari dagokiena, honelako biderketak buruz egiteko:
 8×75 / 5×306 / 6×89 / 7×299
66. Biderketa eta zatiketa alderantzizko eragiketak direla ulertu eta baliatzea.
 Baldin $54 \times 3 = 162$ bada, orduan $162 : 3 = 54$ eta $162 : 54 = 3$
 Baldin $250 : 50 = 5$ bada, orduan $50 \times 5 = 250$ eta $250 : 5 = 50$
67. "Hutsuneak" dituzten biderketak eta zatiketak osatzea:
 $20 \times \quad = 600$ / $2.000 : \quad = 50$ / $\quad : 6 = 500$
68. Biderketa baten gutxi gorabeherako emaitza kalkulatzeko biderkagaien biribiltze konpentsatuaren bidez.
 Adibidea: $47 \times 82 = 50 \times 80 = 4.000$

69. * Zatiketa bateko zatidurak zenbat zifra izanen dituen kalkulatzeari.
Adibidea: $34.658 : 59$ Zatidurak 3 zifra izanen ditu. Erabilitako estrategia azaltzea.
 59×1.000 handiagoa da 34.658 baino, eta 59×100 txikiagoa da.
Zatidura 100 eta 1.000 bitartean dago. 3 zifra ditu.
70. Biderkatzeko algoritmo bat automatizatzea (biderkakizunak gehienez hiru zifra dituelarik, eta biderkatzaileak gehienez bi zifra).
71. Emandako denboran biderketa kopuru jakin bat egitea.
Adibidea: 315×9 / 87×56 / 759×84
- 5 minutu iragan baino lehen.
- * 3 minutu iragan baino lehen.
72. Zatitzeko algoritmo bat automatizatzea (zatikizunak gehienez lau zifra dituelarik, eta zatitzaileak gehienez bi zifra).
73. Emandako denboran zatiketa kopuru jakin bat egitea.
Adibidea: $764 : 4$ / $8.774 : 9$ / $6.907 : 53$
- 5 minutu iragan baino lehen.
- * 3 minutu iragan baino lehen.
74. Zatiketa bat egin ondoren, zatikizunaren, zatitzailearen, zatiduraren eta hondarraren arteko erlazioa idaztea: $Z = z \times z' + h$.
75. * Biderketaren eta zatiketaren legeak ulertu eta erabiltzea:
- Baldin $6 \times 71 = 426$, orduan $60 \times 71 = \dots\dots\dots$
- Baldin $420 : 7 = 60$, orduan $420 : 70 = \dots\dots\dots$
* * Lege horiek enuntziatzea:
- "Biderketa bateko biderkagaietako bat zenbaki batez biderkatzen (zatitzen) badugu, orduan emaitza ..."
- "Zatiketa zehatz bateko zatikizuna (zatitzailea) zenbaki batez biderkatzen (zatitzen) badugu, orduan ..."
76. ** Eragiketen lehentasun-erregela ezagutu eta aplikatzea parentesiak erabiliz.
Adibidea: $3 + 4 \times 5 = 3 + 20 = 23$; $(3 + 4) \times 5 = 7 \times 5 = 35$
77. Kalkulagailuaz biderketak eta zatiketak egitea.
78. Biderketa eta zatiketa alderantzizko eragiketak direla aplikatzea, kalkulagailuaren pantailan lortutako emaitza zuzena dela egiaztatzeko.
 $787 \times 96 =$ $_ : 96 = ?$
 $6775 : 25 =$ $_ \times 25 = ?$
79. ** Zehatza ez den zatiketa bateko hondarra lortzea, kalkulagailua erabiliz.
Adibidea: $437 : 45$
- Zatiduraren zati osoa $437 : 45 = 9,7111\dots$ h; $_ = 437 - (45 \times 9)$
- Zatitzailea behin eta berriz kendu $437 - 45 = 392$; $392 - 45 = 347$

Problema eabaztea.

Problema aritmetiko sinpleak (eragiketa bakarra) ^{5,6}.

ADIERAZLEAK:

80. Problemaren funtsezko osagaiak identifikatzea.

Adibidea: Hauxe dakit Hauxe kalkulatu behar dut

81. Esamolde baliokideak ulertu eta erabiltzea, batuketa-kenketak edo biderketak egin behar direneko egoerak deskribatu/konparatzeko ⁷.

82. Zatiduraren izaera desberdinak azaltzea kasu hauetan:

- zatikizuna eta zatitzailea gauza beraren kopuruak direnean (dirua-dirua; haurrak-haurrak; ...),
- zatikizuna eta zatitzailea gauza beraren kopuruak ez direnean (dirua-haurrak; liburuak-kutxak; ...).

83. Erantzuten ahal zaion galdera egoki bat egitea, elkarrekin erlazioa duten zenbakizko bi datu jakinik, kenketa-batuketak edo biderketak egin behar direneko egoera bati buruzkoak.

84. Datuen zerrenda batetik, galdera jakin bati erantzuteko erabili beharreko datua edo datuak aukeratzea.

⁵ Biderketak/zatiketak egin behar direneko problema sinpleak honakoak dira:

HAINBANAKETEI BURUZKO PROBLEMAK:

Problema hauetan azaltzen diren egoeretan, kantitate bat (A) zati berdinetan banatu behar da zenbait pertsona edo talderen artean, horien kopurua (C) jakinik. Banatu beharreko kantitatea, egin diren taldeen kopurua edo talde bakoitzari egokitu zaizkion elementuen kopurua (B) kalkulatu behar da.

KONPARAZIOEI BURUZKO PROBLEMAK:

Problema hauetan azaltzen diren egoeretan, zenbakizko faktore baten bitartez (zenbat aldiz gehiago edo zenbat aldiz gutxiago) bi kantitate konparatzen dira (A, handiagoa, eta B, txikiagoa). Kantitateetako bat zein den, edo bat bestea baino zenbat aldiz handiagoa den kalkulatu behar da (C).

KONBINAZIOEI BURUZKO PROBLEMAK:


Problema hauetan azaltzen diren egoeretan, multzo bateko (B) elementuak eta beste multzo bateko (C) elementuak binaka elkartu behar dira ahal diren modu guztietan. Guztira zenbat bikote desberdin osatzen ahal diren (A) edo konbinatu beharreko bi multzoetako batek zenbat elementu dituen kalkulatu behar da.

ARRAZOIEI BURUZKO PROBLEMAK:

Problema hauetan azaltzen diren egoeretan hiru magnitudeetako kantitateak erlazionatzen dira: bi estentsibo eta intentsibo bat. Magnitude intentsiboa (C) magnitude estentsiboetako baten (A) eta beste magnitude estentsiboaren (B) neurri-unitatearen arteko arrazoa da. Magnitude intentsiboak dira abiadura, unitateko prezioa, ratioak ...

Probleman aipatzen diren hiru magnitudeetako baten bati dagokion kantitatea kalkulatu behar da.

⁶ Lau egoeretan, guztiz argigarria da, problema ulertu eta eabazte aldera, problemako datuak eta galdera elkarrekin lotzea eskema errektangular batean.



⁷ Adibidez:

Nik zuk baino hiru gehiago ditut. → Zuk ... dituzu.

Mutilak neskak baino lau gutxiago ditu. → Neskak ... ditu.

Hiru gehiago behar ditut hamar izateko. → Orain ... ditut.

Hiru eman dizkizut eta orain zazpi dituzu. → Lehen ... zenituen.

Nire zazpiak eta zureak batzen baditugu hamar izango ditugu. → Zuk ... dituzu.

Nik zuk baino hiru aldiz gehiago dut. → Zuk ... duzu.

Mutilak neskak baino lau aldiz gutxiago du. → Neskak ... du.

Ditudanak halako bi hamar dira. → Orain ... ditut.

Ditudanen laurdena zortzi dira. → Orain ... ditut.

40 karta lau pila berdinetan banatu ditut. → Pila bakoitzean ... daude.

Lau pila. Bost karta pila bakoitzean. → Guztira ... dira .

40 karta banatu ditut. Pila bakoitzean 10 karta jarri ditut. → ... dira

85. * Problema baten testua emanda, problemako galderari erantzun ahal izateko datu osagarriren bat falta dela ohartzea.
86. Testuinguru berean, batuketa, kenketa, biderketa edo zatiketa eginez ebatzi behar diren problema desberdinak asmatzea.
87. Testuinguru eta eragiketa (batuketa, kenketa, biderketa edo kenketa) jakin batzuk emanda, eragiketa horren bidez ebatzi beharko den problema baten testu osoa idaztea.
88. Batuketa/kenketa edo biderketa/zatiketa eginez eguneroko bizitzan ebatzen diren egoerak (problema motak) aipatzea eta horien adibideak ematea.
89. Problema baten testua eta problema horretako zenbakizko datuekin egindako zenbait eragiketa emanda, problema ebatzen duen eragiketa hautatzea.
90. Problema ebatzeko estrategia orokorraren segida logikoa ezagutu eta aplikatzea. Aplikazioa problema aritmetiko sinpleetan ⁸.
91. Aldatze, bat-egite, konparazio eta berdintze problema sinpleak (bi datu eta galdera bat) ebatzea, problema ebatzeko urratsak eginez.
92. Biderketa/zatiketen bidezko problema sinpleak (bi datu eta galdera bat) ebatzea, hainbanaketekin, zenbakizko konparazio-faktoreekin, konbinazio kartesiarrekin eta magnitude intentsiboekin zerikusia dutenak, ebazpen-prozesuko urratsak eginez.

Problema aritmetiko konbinatuak (hainbat eragiketa).

ADIERAZLEAK:

93. ** Idatziz (taula, katalogo eta abarren bidez) emandako datu batzuk erabiliz erantzuten ahal zaien bi galdera edo gehiago idaztea.
94. * Datu batzuk eta galdera bat emanda, galdera horri erantzun ahal izateko zein datu falta den esatea.
95. ** Datu batzuk eta horiekin zerikusia duten galdera batzuk emanda, zein galderari erantzuten ahal zaien eta zeini ez bereiztea eta azaltzea.
96. Zatikako problemak ebatzea. Problema horien testuan zenbakizko hiru datu edo gehiago eman eta elkarri lotutako galdera batzuk egiten dira. Galdera bakoitzari erantzun ahal izateko problema sinple bat ebatzi behar da batuketa-kenketen bidez edo biderketaren bidez.
97. Problema konbinatu bat eskema gisa adieraztea, datuak (dakidana) eta galdera (kalkulatu nahi dudana) bereiziz, testua bizpahiru aldiz irakurri eta egoera irudikatu ondoren.
Hauxe dakit: Hauxe kalkulatu nahi dut:

⁸ Hona hemen metodologiaren eskema izan daitekeena:

- Problema ulertu. Problema geure buruari esan, datuak (zer dakit?) eta galdera (zer kalkulatu nahi dut?) bereiziz.
- Problemako datuak eta galdera erlazionatu. Datuak eta galdera eskema egoki batean irudikatu.
- Eskematik ondorioztatzen den eta problema ebatziko duen eragiketa antolatu eta egin. Erantzuna idatzi.
- Erantzuna "logikoa" dela egiaztatu. Emaitzako kontakizuna irakurri, problemako galderaren lekuan lortutako erantzuna jarrita.

- 1 1 2. Objektuak espazioan duen kokapena gorabehera haren luzera ez dela aldatzen ulertzea.
- 1 1 3. Metroa, haren multiploak eta azpimultiploak ezagutzea, luzerak edo distantziak neurtzeko unitate gisa.
- 1 1 4. Luzera-unitateen arteko baliokidetasunak ezagutu eta erabiltzea.
- 1 1 5. Luzera-unitateen laburdurak ezagutu eta erabiltzea (km, hm, dam, m, dm, cm, mm).
- 1 1 6. Luzerak edo distantziak neurtzea tresna egokiekin (erregela, zinta metrikoak ...) eta neurketaren emaitza adieraztea, hurbilketaren edo enkoadraketaren bidez, unitate egokienak erabiliz.
- $$3 \text{ m } 20 \text{ cm} < X\text{-ren luzera} < 3 \text{ m } 21 \text{ cm}$$
- $$X\text{-ren luzera} \approx 320\text{cm}$$
- 1 1 7. Modu sinplean edo konplexuan emandako luzera-neurriak ordenatzea.
- 1 1 8. Modu konplexuan emandako luzera-neurria modu sinplean adieraztea:
- $$2 \text{ km } 30 \text{ m} = 2.030 \text{ m} \qquad 2 \text{ m } 34 \text{ cm} = 234 \text{ cm} = 2.340 \text{ mm}$$
- 1 1 9. Modu sinplean emandako luzera-neurria modu konplexuan adieraztea:
- $$345 \text{ m} = 3 \text{ hm } 45 \text{ m} = 3 \text{ hm } 4 \text{ dam } 5 \text{ m} \dots$$
- 1 2 0. Luzera-neurrien arteko batuketak eta kenketak egitea:
- Modu sinplean emanda.
 - * Modu konplexuan emanda.
- 1 2 1. Luzera-neurri desberdinetarako berariazko erreferenteak ezagutzea.
- * Horiek erabiltzea, konparazioaren bitartez distantziak edo inguruko beste objektu batzuen luzera zenbatesteko.

Masa.

ADIERAZLEAK:

- 1 2 2. Objektuen masak pertzepzioaren bidez konparatzea eta konparazio horiek hitzez adieraztea.
- 1 2 3. Objektu bat espazioan edonola aurkeztuta ere (zatituta, deformatuta) haren masa ez dela aldatzen ulertzea.
- 1 2 4. Balantza besodunaren bitartez, hiru objektu egoki pisuaren arabera ordenatzea, arrazoibide trantsitiboak erabiliz.
- 1 2 5. Kilogramoa, haren multiploak eta azpimultiploak ezagutzea, objektuen masa neurtzeko unitate gisa.
- 1 2 6. Masa-unitateen arteko baliokidetasunak ezagutu eta erabiltzea.
- 1 2 7. Pisu-unitateen laburdurak ezagutu eta erabiltzea (t, q, kg, hg, dag, g, dg, cg, mg).
- 1 2 8. Objektu egokien pisua neurtzea, besodun balantza eta pisuen sistema erabiliz, eta egoki adieraztea neurketaren emaitza, hurbilketaren edo enkoadraketaren bitartez.

- 1 2 9 . Modu sinplean edo konplexuan emandako masa-neurriak ordenatzea.
- 1 3 0 . Modu konplexuan emandako masa-neurria modu sinplean adieraztea:
 $2 \text{ kg } 30 \text{ g} = 2.030 \text{ g}$ $2 \text{ g } 34 \text{ cg} = 234 \text{ cg} = 2.340 \text{ mg}$
- 1 3 1 . Modu sinplean emandako masa-neurria modu konplexuan adieraztea:
 $345 \text{ g} = 3 \text{ hg } 45 \text{ g} = 3 \text{ hg } 4 \text{ dag } 5 \text{ g} \dots$
- 1 3 2 . Masa-neurrien arteko batuketak eta kenketak egitea:
 - Modu sinplean emanda.
 - * Modu konplexuan emanda.
- 1 3 3 . Masa-neurri desberdinetarako berariazko erreferenteak ezagutzea.
 * Horiek erabiltzea inguruko beste objektu batzuen pisua zenbatesteko.

Edukiera.

ADIERAZLEAK:

- 1 3 4 . * Ontzien edukierak pertzepzioaren bidez konparatzea, haien neurriei erreparatuta.
 Konparazio horiek hitzez adieraztea.
- 1 3 5 . Hiru ontzi egoki edukieraren arabera ordenatzea, edukia ontziz aldatuz eta arrazoibide trantsitiboak erabiliz.
- 1 3 6 . Litroa, haren multiploak eta azpimultiploak ezagutzea, ontzien edukiera neurtzeko unitate gisa.
- 1 3 7 . Neurketa mota zehatzetan gehien erabiltzen diren edukiera-unitateen arteko baliokidetasunak ezagutu eta erabiltzea (hl, dl, l, dl, cl, ml).
- 1 3 8 . Edukiera-unitateen laburdurak ezagutu eta erabiltzea (kl, hl, dal, l, dl, cl, ml).
- 1 3 9 . Ontzi egokien edukiera neurtzea, ontzi graduatuak erabiliz, eta neurketaren emaitza egoki adieraztea, hurbilketaren edo enkoadraketaren bitartez.
- 1 4 0 . Modu sinplean edo konplexuan emandako edukiera-neurriak ordenatzea.
- 1 4 1 . * Modu konplexuan emandako edukiera-neurri bat modu sinplean adieraztea:
 $2 \text{ hl } 30 \text{ l} = 230 \text{ l}$ $2 \text{ dl } 34 \text{ ml} = 234 \text{ ml}$
- 1 4 2 . * Modu sinplean emandako edukiera-neurri bat modu konplexuan adieraztea:
 $345 \text{ l} = 3 \text{ hl } 45 \text{ l} = 3 \text{ hl } 4 \text{ dal } 5 \text{ l} \dots$
- 1 4 3 . Edukiera-neurrien arteko batuketak eta kenketak egitea:
 - Modu sinplean emanda.
 - * Modu konplexuan emanda.
- 1 4 4 . Edukiera-neurri desberdinetarako berariazko erreferenteak ezagutzea.
 * Horiek erabiltzea inguruko beste ontzi batzuen edukiera zenbatesteko.

Denbora.

ADIERAZLEAK:

- 1 4 5. Kontakizunak antolatzea eta eguneroko jarduerak / ohiturak ordenatzea, aditz-denborak eta denborari buruzko termino erabilienak ongi erabiliz (orain/ lehen/ gero..., goizean/ eguerdian/ ..., lehenik/bigarrenik, geroago, atzo/ gaur/ bihar..., aste honetan..., lehengo/hurrengo astean ...).
- 1 4 6. Denbora-kalkuluak egitea, egutegia erabiliz.
- 1 4 7. Ikasleentzat garrantzia duten gertaerei lotutako datak ordenatzea.
- 1 4 8. * Milurtekoa/mendea/hamarkada/bosturtekoa ezagutzea, denbora-unitate gisa.
- 1 4 9. Ordu laurdenak, ordu erdiak eta hiru laurdenek zenbat minutu dituzten jakitea.
- 1 5 0. Erloju digitaleko ordua modu analogikoan adieraztea eta alderantziz.
- 1 5 1. Denbora-unitateen arteko baliokidetasunak ezagutu eta erabiltzea.
- 1 5 2. Modu sinplean emandako iraupenak eta denbora-neurriak ordenatzea.
- 1 5 3. Denbora-unitateen hitzarmenezko laburdurak interpretatzea.
- 1 5 4. * Modu konplexuan (orduak eta minutuak) emandako denbora-neurri bat modu sinplean adieraztea eta alderantziz.
- 1 5 5. * Iraupenei denbora "gehitzea" eta "zenbat denbora falta den ikustea", ordu eta minututan.
- 1 5 6. Ordu-programazioetatik datuak ateratzea eta denbora-kalkulu errazak egitea.

Dirua.

ADIERAZLEAK:

- 1 5 7. Legezko txanpon eta billeteak eta haien arteko baliokidetasunak ezagutzea.
- 1 5 8. Zentimoetarainoko hurbilketak dituen prezio-zerrenda ordenatzea.
- 1 5 9. Prezioen batuketak eta kenketak egitea:
 - Prezioak euro kopuru osoak direnean.
 - * Prezioak zenbaki hamartarren bidez ematen direnean.
- 1 6 0. Gauza baten prezioa jakinik, ahoz eta idatziz adieraztea ordaintzeko orduan billete eta txanponekin osatzen ahal diren "konposizioak".
- 1 6 1. Gauza baten prezioa jakinik, ahoz adieraztea "atzerakoan konposizio" desberdinak, balio handiagoko billete edo txanpon batez ordaindu denean.
- 1 6 2. * Buruz jakitea zenbait gauzaren gutxi gorabeherako prezioak, eta beste gauza batzuen prezioa konparazio bidez zenbatesteko erabiltzea.

3. FORMA GEOMETRIKOAK ETA ESPAZIOKO KOKAPENA

Geometria.

ADIERAZLEAK:

- 163. Angelu kontzeptua biraketa kontzeptuarekin lotzea.
- 164. Angeluen irekierak ordenatzea angelu mugikor baten bidez, arrazoibide trantsitiboak erabiliz.
- 165. Angelu zuzena bi lerro zuzen perpendikularrek osatzen dituzten angeluekin lotzea (osatzen dituzten lau angeluak berdinak dira).
- 166. Angeluak angelu zuzenarekin konparatzea. Angeluak sailkatzea (zorrotzak, zuzenak, kamutsak, lauak, 180° -tik gorakoak eta osoak) eta angelu mota guztiak eta haien ezaugarriak ezagutzea.
- 167. Figura geometriko lauetan angelu motak bereiztea.
- 168. Gradua ezagutzea angeluak neurtzeko unitate gisa.
- 169. Angeluen irekiera neurtzea, garraiaigailua edo zirkulu graduatua erabiliz.
- 170. * Angelu baten kopia egitea tresna hauek erabiliz:
 - Erregela eta zirkulu graduatua.
 - Erregela eta konpasa.
- 171. Zuzen, zuzenerdi eta segmentu kontzeptuak egoki azaltzea. Haien adierazpen grafikoei izaera infinitua edo finitua esleitzea.
- 172. Zuzenen kokapen erlatiboak deskribatzea planoan eta espazioan ¹¹.
- 173. * Zuzenek izan ditzaketan kokapenak (norabideak) ezagutzea inguruan: horizontalak, bertikalak eta zeharrik.
- 174. * Lerro paraleloak eta perpendikularrak marraztea, eskuaira eta kartaboa erabiliz.
- 175. Lerro itxi batzuen artetik, poligono direnak bereiztea eta aldeen/erpinen kopuruaren arabera sailkatzea.
- 176. Poligono konkaboak eta konbexuak ezagutzea eta nolakoak diren esatea.
- 177. * Poligono erregularrak ezagutzea eta nolakoak diren esatea.
- 178. ** Triangeluak sailkatzea aldean luzera eta angeluen irekiera kontuan hartuta.
 - ** Zazpi triangelu motak marraztu edo egitea.

¹¹ - Planoan:

- Elkar ebakitzen dute, puntu komun bat dute, lau angelu osatzen dituzte bi-bitara berdinak (ebakitzaileak dira).
Bi zuzen ebakitzaile, gainera, perpendikularrak izan daitezke, osatzen dituzten lau angeluak berdinak badira.
- Ez dute elkar ebakitzen, beti distantzia berera daude (paraleloak).

- Espazioan:

- Elkar ebakitzen dute (ebakitzaileak, eta gainera perpendikularrak izan daitezke).
- Ez dute elkar ebakitzen:
 - Paraleloak dira.
 - Gurutzatu egiten dira.

179. ** Poligono baten ezaugarriak jakinik, hura geoplanoan marraztea edo mekanoko hagatxoekin egitea:
- 4 alde ditu eta angeluetako bat zuzena du.
 - 6 alde ditu, horietako hiru luzera berekoak.
 - 4 alde ditu eta angeluetako bat konkaboak du.
180. Koadrilatero motak ezagutzea, nolakoak diren esatea eta sailkatzea, haien aldeen paralelotasuna/luzera eta haien angeluen irekiera kontuan hartuta.
- * Zazpi koadrilatero motak marraztu edo egitea.
181. * Koadrilatero mota bakoitzaren diagonalen propietateak aurkitu eta enuntziatzea: luzera, perpendikulartasuna, ebaketa-puntua, osatzen dituzten triangeluak, simetria...
182. Figura geometrikoen simetria-ardatzak ezartzea. Simetria-ardatz direla egiaztatzea eta arrazoiak azaltzea.
183. Simetria-ardatz bat eta figura sinple bat emanda, figura simetrikoa marraztea.
- * Bi figura emanda, noiz diren elkarren simetrikoak ezagutzea eta simetria-ardatza marraztea.
184. Geoplanoan edo paper-orri saretuan marraztutako figurak ikusirik, formaren, tamainaren eta perimetroaren berdintasunak ezagutzea eta zeintzuk diren kongruenteak adieraztea.
185. * Figura sinpleen kopiak egitea, erregela, konpasa eta zirkulu graduatua erabiliz.
186. ** Figura geometriko sinple baten kopia egin ahal izateko behar diren jarraibideak ahoz ematea.
187. Zirkunferentziako oinarriko elementuak (zentroa, erradioa, diametroa, korda, arku...) marraztea eta nolakoak diren esatea.
188. Benetako edo marraztutako gorputz geometriko batzuen artetik poliedroak eta/edo gorputz biribilak bereiztea eta nolakoak diren esatea.
189. Benetako edo marraztutako poliedro batzuen artetik konkaboak eta konbexuak bereiztea eta nolakoak diren esatea.
190. Benetako edo marraztutako poliedro batzuen artetik prismak eta piramideak bereiztea eta nolakoak diren esatea.
191. Ingurunean gorputz geometrikoak ezagutzea: prismak, piramideak, esferak, konoak, zilindroak ...
192. Aurpegi, ertz eta erpin kontzeptuak azaltzea, poliedro konbexu batean.
193. Poliedro konbexu baten aurpegiak, ertzak eta erpinak zenbatzea.
194. Gorputz geometriko sinple bat ikusita, haren ertz edo aurpegietatik zeintzuk diren paraleloak edo perpendikularrak esatea.
195. Poliedro erregular konbexuen aurpegi forma ezagutzea.
196. * Kuboak egiteko plantilla desberdinak identifikatzea, bai eta poliedro ezagunen plantillak ere.
197. Eraikuntzen kopiak egitea:
- Benetakoak/benetakoak.
 - * Marrazkiak/benetakoak.

Espazioko orientazioa.

ADIERAZLEAK:

- 198. ** Kokapen deskribatzaile guztiak erlatiboak direla eta erreferentzia-sistemaren mende daudela jakitea.
- 199. Ortoedro baten aurpegiak, ertzak eta erpinak kokatzea, goian / behean, aurrean / atzean, eskuinean / ezkerrean deskribatzaileak erabiliz.
- 200. * Puntu batetik bestera joateko ibilbideak egokiro adierazi/deskribatzea: plano batean, poliedro baten gainazalean ...
- 201. * Espazio mugatu batean ikaskideek edo objektuek hainbat erreferenterekiko duten kokapena deskribatzea.
- 202. Sare baten gainean irudikatutako ibilbideak deskribatu / burutzea, norabideak eta irudikatutako distantzia zehaztuta.
- 203. Zehaztasunez azaltzea (igo/jaitsi, biratu eskuinera/ezkerrera...) eskolako toki batetik bestera iristeko bidea.
- 204. Erreferentzia-sistema ortonormala emanda, puntuak kokatzea koordenatu kartesiarrak erabiliz.
- 205. ** Puntu jakin batetik abiatuta, eta puntu kardinalak kontuan izanik, plano bateko posizioak deskribatzea, norabideak adieraziz.

4. INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA

Oinarrizko estatistika.

ADIERAZLEAK:

- 206. * Ezarritako prozedurak erabiltzea giza talde batean (ikasgela, ikastetxea, familiak...) datuak eta iritziak biltzeko eta lortutako emaitzen zenbaketa egiteko.
 - Gelako ikasleak noiz jaio ziren (hila edo urtaroa).
 - Gelako ikasleek zenbat neba-arreba (osaba-izeba) dituzten.
 - Fruta gustukoena/edari gustukoena/kirola ...
 - Eskolako gairen bati buruzko iritzia...
 - Ikasleek etxean zenbat telebista dituzten ...
- 207. Emandako plantillen gainean, maiztasun absolutuen taula xumeak egitea aurreko puntuan adierazitakoak bezalako behaketa sistematikoetan lortutako emaitzekin.
- 208. Ardatz bakoitzean zer adierazten den ezagutu eta zehaztea, barra-diagrama bezalako irudikapen estatistikoa egitean.
- 209. Adierazpen grafikoak -barra-diagramak- egitea, emandako maiztasun-tauletan bildutako datuetatik abiatuta, barra-diagramen bitartez.

- 2 1 0. ** Grafiko estatistiko xumeak interpretatzea, zuzeneko eta ondorioztatutako informazioa atereaz.
- 2 1 1. * Sarrera bikoitzeko taulak irakurri eta interpretatzea (ordutegiak, kinielak, egutegiak, ezaugarrien araberako sailkapenak ...).
- 2 1 2. Estatistikaren gizarte-erabilera aintzat hartzea.
- 2 1 3. Gertaera posibleak eta ezinezkoak ezagutzea ausazko joko edo saiakuntza xumeetan.
- 2 1 4. * Maiztasun handiagoko eta txikiagoko gertaerak ezagutzea eguneroko bizitzan eta ausazko saiakuntza xumeetan.

HIRUGARREN ZIKLOA

1. ZENBAKIAK ETA ERAGIKETAK

Zenbaki arruntak.

ADIERAZLEAK:

1. Eguneroko bizitzan zenbaki arruntak nola erabiltzen diren jakitea eta erabilerak bereiztea. Zergatik diren beharrezkoak azaltzea.
2. Zenbaki-sistema hamartarraren egitura eta funtzionamendua ezagutzea.
3. Edozein zenbaki arrunt irakurtzea.
4. Edozein zenbaki arrunt idaztea.
5. * Zenbaki erromatarrak irakurri eta idaztea.
6. * Zenbaki erromatarrak ulertu eta erabiltzea zerrendetan, data historikoetan, hondar historikoen azterketan eta, oro har, horrelako zenbakien gizarte-erabileretan.
7. Zenbaki bat entzunda, zenbat zifra dituen eta/edo haren magnitude-ordena esatea.
8. Zenbaki arruntak zuzen graduatu batean kokatzea/tartekatzea eta haien posizioa zehaztea, graduazioa kontuan izanik.
9. Edozein zenbaki arrunt deskonposatzea, haren zifren posiziozko balioari erreparatuta:
$$408.705 = 400.000 + 8.000 + 700 + 5$$
$$408.705 = 4 \times 100.000 + 8 \times 1.000 + 7 \times 100 + 5 \times 1$$
$$** 408.705 = 4 \times 10^5 + 8 \times 10^3 + 7 \times 10^2 + 5$$
10. Zenbaki arruntak ordenatzea eta jarraitu beharreko prozedura azaltzea.
11. Zenbaki baten multiploa eta zatitzailea zer diren esatea.
12. Zenbaki jakin baten multiploak aurkitzea:
- * Bi zenbakiren lehen multiplo komuna.
13. Bi zifra arteko zenbaki baten zatitzaile guztiak aurkitzea:
- * Bi zenbakiren zatitzaile komunak.
14. Zenbaki bat beste baten multiploa den esatea.
15. Zenbaki lehenak eta konposatuak zer diren esatea.
16. Bi zenbaki bata bestearekiko lehenak noiz diren esatea.
17. 50etik beherako zenbaki lehenen seriea ezagutzea, ordenatuta.
18. Batuketaren edo biderketaren bidez goranzko edo beheranzko zenbaki-serieak egitea kadentzia jakinarekin, zenbaki egoki batetik abiatuta:
- 20, 40, 80, 160, ,
- 3, 9, 27, , ,
- 10.000, 2.000, 400, ,
19. * Emandako serie batzuk osatzeko legea aurkitu eta azaltzea.

20. ** Prozedura sistematikoak erabiltzea zenbait baldintza betetzen dituzten zenbaki arruntak esateko eta txikienetik handienera ordenatzeko.
- Ondoko zifretako hirurekin osatzen ahal diren hiru zifra zenbaki bikoitiak: 7, 5, 0, 8.
 - Zifren batura 10 duten bost zifra arteko zenbaki kapikuak.
 -
21. 2, 3, 4, 5, 9 eta 10 zenbakien zatigarritasun-erregelak ezagutzea.

Frakzioak.

ADIERAZLEAK:

22. Eguneroko bizitzan frakzioak noiz erabiltzen diren jakitea. Haien erabilgarritasuna arrazoitzea.
23. Frakzioak irakurri eta idaztea.
24. Frakzioaren bi osagaien esanahia ulertzea: zenbakitzailea (zenbat zati diren adierazten du) eta izendatzailea (zati berdinei izena ematen die).
25. Zenbakitzailearen eta izendatzailearen esanahi operatiboa ezagutzea.
26. $1/2$, $1/3$, $1/4$ eta $1/5$ frakzioen adierazpen hamartarra jakitea, kalkulurik gabe.
27. Zenbaki hamartarraren eta frakzioaren arteko erlazioa ezartzea.
28. Frakzio baten zenbakizko balioa ondoz ondoko bi zenbaki arrunten artean kokatzea.
29. * Frakzioak zuzen graduatu batean kokatu edo tartekatzea:
- Bi zenbaki arrunten artean.
 - Bi frakzioen artean.
30. * Frakzio baliokide guztiek zergatik determinatzen duten zenbaki bera azaltzea.
31. Handitze eta sinplifikazio prozedurak aplikatzea frakzio baliokideak aurkitzeko.
32. Frakzio laburtezinak identifikatzea eta zer diren esatea.
33. Bi frakzio emanda, baliokideak diren ala ez esatea.
34. * Bi frakzio emanda, bien baliokideak izan eta izendatzaile bera duten frakzioak aurkitzea.
35. Ondokoak ordenatzea eta erabilitako prozedura azaltzea:
- Zenbakitzaile bera duten frakzioak.
 - Izendatzaile bera duten frakzioak.
 - ** Izendatzaile bera ez duten frakzioak.
36. ** Frakzioak arrazoi gisa identifikatzea eta honelako proportzioak osatzea:
- | | |
|---|--------------------|
| “Lautik hiru berdintik bederatzi” | $3/4 = 9 /$ |
| “Bostetik bi berdin hamarretik” | $2/5 = \quad / 10$ |
37. Kalkuluak egitea eragigai frakzionarioekin, ahoz eta idatziz:
- 200en laurdena.
 - 100en bostena hiru halako.
 - 800en $3/4 =$ 40ren $3/2 =$

Zenbaki hamartarrak.

ADIERAZLEAK:

38. Eguneroko bizitzan zenbaki hamartarrak noiz erabiltzen diren jakitea eta haien erabilgarritasuna arrazoitzea.
39. Gehienez hiru zifra hamartar dituzten zenbaki hamartarrak irakurri eta idaztea:
3,15: Hiru koma hamabost; 3,15: Hiru unitate eta hamabost ehunen.
40. * Diktatutako zenbaki hamartarrak idaztea.
41. Unitate, hamarren, ehunen eta milarenen arteko baliokidetzak ezartzea eta horietako bakoitzaren balioa azaltzea unitatearekiko.
10 hamarren = unitate bat / 10 ehunen = hamarren bat.
35 hamarren = 3,5 unitate = 350 ehunen = 3500 milaren.
75 milaren = 0,075 unitate.
0,55 unitate = 5,5 hamarren = 55 ehunen = 550 milaren.
42. Adierazpen hamartar baliokideak arrazoitzea eta idaztea.
 $0,3 = 0,30 = 0,300$
43. Zenbaki hamartarrak ordenatzea eta erabili beharreko prozedura azaltzea.
44. Zenbakizko zuzen graduatuan zenbaki hamartarrak irudikatu/tartekatzea.
45. Bi zenbaki hamartar jakinen artean zenbakiak tartekatzea modu arrazoituan:
 $3,2 < < < 3,4 \quad 17,25 > > 17,24$
46. ** Ulertzea eta azaltzea zergatik ezin den jakin zenbaki hamartar baten atzekoa edo aurrekoa.
47. Frakzio baten adierazpen hamartarra idaztea, behar den zatiketa egin ondoren:
- Adierazpen hamartarra zehatza denean.
- * Adierazpen hamartarra periodikoa denean.
48. Frakzioak ordenatzea, haien adierazpen hamartarrak lortu ondoren.
49. * Idatzizko kalkulerik egin gabe, frakzio sinpleen adierazpen hamartarrak jakitea.
 $1/2, 1/3, 1/4, 1/5, 1/10, 2/3, 2/5, 3/4, 3/5, 4/5 \dots$
50. Zenbaki hamartarrak modu desberdinetan deskonposatzea, haien zifren posiziozko balioari erreparatuta:
 $38,47 = 30 + 8 + 0,4 + 0,07$
* $38,47 = 3 \times 10 + 8 \times 1 + 4 \times 0,1 + 7 \times 0,01$
* $38,47 = 3 \times 10 + 8 \times 1 + 4 \times 1/10 + 7 \times 1/100$
51. Zenbaki hamartar jakin bat gertueneko hamarren edo ehunenera hurbiltzea:
 $6,357 \quad 6,4 / 6,36$
 $6,366666 \quad 6,4 / 6,37$

52. ** Zenbaki handiak idaztea, idazkera zientifikoan:
 - $657.008.790 \approx 6,57 \times 10^8$

Frakzioak, hamartarrak eta portzentajeak.

ADIERAZLEAK:

53. Eguneroko bizitzan portzentajeak (ehunekoak) noiz erabiltzen diren jakitea.
54. ** Zenbakizko informazioa portzentaje moduan erabiltzearen arrazoiak eta baliagarritasuna azaltzea.
55. Portzentaje baten (%20) esanahia ulertzea, zatiaren eta osotasunaren arteko erlazio gisa.
 - Adibidea: %20: Osotasuna 100 zati berdinetan zatitu da eta 20 hartu dira; beraz, portzentaje hori 20/100 frakzioaren baliokidea da.
56. * Portzentaje bat modu frakzionarioan eta hamartarrean adieraztea:
 $20\% = 20/100 = 0,2$
57. Kopuru baten %100 zergatik den kopuru osoa ulertu eta azaltzea.
58. ** Portzentajeen esanahia ulertzea bi kopuru konparatzean.
 Adibidea: prezioa 25 eurotik 75 eurora aldatu da.
 - Prezioa %200 gehitu da.
 - 75 euro 25 euroren %300 da. Oraingo prezioa lehengoaren %300 da.
59. Portzentaje errazen baliokide frakzionarioak buruz ikastea.
 $25\% = 1/4$ $50\% = 1/2$ $75\% = 3/4$ $20\% = 1/5 \dots$
60. * Portzentajeen kalkulu errazak egitea (kopuru edo figura jakinen ehunekoak kalkulatzeko), eragigai hamartar edo frakzionario egokia aplikatuz:
 - 500en %40 = 500en $40/100 = 0,4 \times 500 = 200$
 - Errektangeluaren %25 = errektangeluaren $1/4$.
61. ** Portzentajeak handitu edo txikitzeko kalkulu errazak egitea, eragigai hamartar egokia aplikatuz:
 - %25 handitu $125/100$ 1,25
 %25 handitzea 200 euroko isuna.
 (200 x 1,25) euro ordaindu behar dira.
 - %25 txikitu $75/100$ 0,75
 %25 kendu 200 euroko isunari.
 (200 x 0,75) euro ordaindu behar dira.

ADIERAZLEAK:

62. Zenbaki hamartar sinpleen arteko batuketak eta kenketak egitea, ikusizko sostenguarekin. Erabilitako prozedura azaltzea.

$$1,6 + 0,6 \quad / \quad 2,34 + 0,5 \quad / \quad 1,5 - 0,6 \quad / \quad 3,58 - 1,2$$

63. Hamarreko, ehuneko eta milako osoen arteko batuketak eta kenketak buruz egitea, ikusizko laguntzarik gabe.

$$80 + 70 \quad / \quad 200 + 900 \quad / \quad 2.500 + 700$$

$$100 - 30 \quad / \quad 260 - 40 \quad / \quad 420 - 30$$

64. Lerroan emandako batuketak edo kenketak buruz egitea, adibidez:

$$40 + 70 + 60 \quad / \quad 900 + 800 + 400 \quad / \quad 1.500 + 800 + 4.000$$

$$250 - 70 + 20 \quad / \quad 3.800 - 1300 \quad / \quad 4.500 - 1.600$$

$$340 + \quad = 490 \quad / \quad + 600 = 2.100$$

$$510 - \quad = 450 \quad / \quad - 80 = 70$$

65. * Goranzko eta beheranzko zenbaki-serieak egin edo luzatzea 0,25 / 0,5 / 0,75 / 25 / 50 / 75 / 100 / 250 / 1.000 / 5.000 ... kadentziarekin, zenbaki egokitik abiatuta.

$$45 \quad (\text{Bakoitzari } 0,75 \text{ batu})$$

$$12,50 \quad (\text{Bakoitzari } 0,25 \text{ kendu})$$

$$2.750, 2.500, 2.250, \dots$$

$$50, 125, 200, \dots$$

66. Zutabean edo lerroan emandako batuketa edo kenketen gutxi gorabeherako estimazioak egitea.

$$87.600 + 8.378 + 53.450 \approx \quad 92.312 - 7.480 \approx$$

67. Batuketa edo kenketa baten emaitza modu arrazoituan enkoadratzea.

$$< 7.380 + 4.667 <$$

$$< 17.200 - 5.856 <$$

68. * Hamarreko eta ehunekoen arteko biderketak buruz egitea.

$$40 \times 70 \quad / \quad 60 \times 400 \quad / \quad 600 \times 900$$

Erabilitako prozedura azaltzea.

69. Milako, ehuneko eta hamarrekoko osoen arteko zatiketa zehatzak buruz egitea.

$$600 : 30 \quad / \quad 7.200 : 80 \quad / \quad 50.000 : 250$$

Erabilitako prozedura azaltzea.

70. "Hutsuneak" dituzten biderketak eta zatiketak osatzea.

$$20 \times \quad = 6.000 \quad / \quad 20.000 : \quad = 50 \quad / \quad : 3 = 900$$

71. * Biderketa baten emaitzaren hurbilketa/enkoadraketa buruz egitea.
Erabilitako prozedura azaltzea.

$$78 \times 43 \approx \quad / \quad 682 \times 12 \approx$$

72. Zatiketa konplexu bateko zatidurak zenbat zifra izanen dituen azkar kalkulatzeko.
Erabilitako prozedura azaltzea.

Kalkulu algoritmikoa.

ADIERAZLEAK:

- 73. Batuketaren algoritmoa automatizatzea zenbaki arruntekin eta hamartarrekin.
- 74. Kenketaren algoritmoa automatizatzea zenbaki arruntekin eta hamartarrekin.
- 75. Biderkaketaren algoritmoa automatizatzea zenbaki arruntekin eta hamartarrekin.
- 76. Zatiketaren algoritmoa automatizatzea zenbaki arruntekin eta hamartarrekin.
- 77. Emandako denboran, zenbaki arrunt eta hamartarren arteko batuketa eta kenketa kopuru jakin bat azkar eta ongi egitea, zutabearen eta lerroaren.

Adibidea: Hiru minutu iragan aurretik hiru batuketa edo kenketa hauek egiteko gai izatea:

8 9 4	934 + 75 =	7, 4 2
+ 3 8 9		+ 4, 8
-----		-----

7 3 4	514 - 69 =	3, 0 8
- 2 5 8		- 1, 5 3
-----		-----

- 78. Emandako denboran, hiru zifra arteko zenbaki arrunt edo hamartar baten eta zifra bakarreko edo biko beste baten arteko biderketa kopuru jakin bat egitea, azkar eta ongi.
Adibidea: Hiru minutu iragan aurretik bi biderketa hauek egiteko gai da:

$$83,7 \times 45 \quad 3,4 \times 2,6$$

- 79. ** Zenbaki bat unitatea baino txikiagoa den beste batez biderkatzean (zatitzean) zer gertatzen den jakin eta azaltzea.

- 80. Emandako denboran, zenbaki arrunt edo hamartar baten eta zifra bakarreko edo biko beste baten arteko zatiketa kopuru jakin bat egitea, azkar eta ongi.

Adibidea: Lau minutu iragan aurretik bi zatiketa hauen zatidura kalkulatu du, zifra hamartar batekin:

$$7480 : 38 \quad 83,54 : 5,7$$

81. Zenbaki arrunt edo hamartar bat 10, 100, 1.000 ... zenbakiez biderkatu edo zatitzeko prozedura aplikatu eta arrazoitzea

82. Zatikizuna eta zatitzailea zenbaki hamartarrak dituen zatiketa baten baliokidea ematea; adibidez:

$$35,47 : 1,2 \qquad 3547 : 120 \qquad 658 : 1,4 \qquad 6580 : 14$$

83. Zatikizunaren (Z), zatitzailearen (z), zatiduraren (z') eta hondarraren (h) arteko erlazioak jakin eta idaztea:

$$Z = (z \times z') + h \qquad Z / z = z' + h / z$$

84. * Kasu hauetan zatidurari zer gertatzen zaion jakin eta azaltzea:

- Zatikizuna zenbaki arrunt batez biderkatzen (zatitzen) denean.

- Zatitzailea zenbaki arrunt batez biderkatzen (zatitzen) denean.

- Zatikizuna eta zatitzailea zenbaki arrunt beraz biderkatzen (zatitzen) direnean.

85. * Biderketaren/zatiketaren legeak aplikatu behar direneko ariketak modu arrazoituan ebaztea:

- Baldin $37 \times 1,4 = 51,8$ bada

orduan $370 \times 14 =$ $3,7 \times 0,14 =$ y $51,8 : 14 =$

- Baldin $4707 : 9 = 523$ bada

orduan $47,07 : 9 =$ $52,3 \times 9 =$ $4707 : 0,9 =$

86. Biderketaren banatze-legea, batuketari eta kenketari dagokiena, aplikatzea.

87. Eragiketen lehentasunak ezagutu eta aplikatzea.

88. * Parentesiak dituzten adierazpen matematikoak ebaztea, zenbaki arrunt eta hamartarrez osatuak.

Adibidea: $3 \times (6,25 + 0,5) + 16 : 4 \times 2$

89. * Izendatzaile berdina edo desberdina duten zenbaki frakzionario sinpleen arteko batuketak eta kenketak egitea:

$$\frac{3}{5} + \frac{4}{3} \qquad \frac{2}{5} + \frac{7}{10} \qquad \frac{3}{4} - \frac{1}{2} \qquad \frac{5}{6} - \frac{1}{4}$$

90. Berreketa biderkagai berdinen arteko biderketa dela jakitea.

91. Berreketa osagaiak identifikatu eta ulertzea: berrekizuna eta berretzailea.

92. * 10 zenbakiaren multiploak berreketa gisa adieraztea:

$$1.000 = \quad / \quad 1.000.000 = \quad / \quad 27.000 = \quad / \quad 8.000 =$$

93. ** Berrekizun berdina duten berreketa arteko biderketak eta zatiketak egitea. Erabili behar den prozedura arrazoitu eta azaltzea.

94. ** Berretzailea zero denean berretura unitatea dela jakitea.

Kalkulagailuaren erabilera.

ADIERAZLEAK:

95. Kalkulagailuaren bidez batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketen kalkulu sinpleak eta konbinatuak egitea, zenbaki arrunt eta hamartarrekin.
96. Kalkulagailuarekin egindako eragiketa baten (batuketa, kenketa, biderketa edo zatiketa) emaitza egiaztatzea, eragiketa horiek aurkakoak edo alderantzizkoak direla baliatuz.
97. * Hiru zifrarainoko zenbaki jakin bat lehena den ala ez esatea. Erabili beharreko prozedura azaltzea.
98. ** Hiru zifrarainoko zenbaki jakin baten zatitzaile guztiak aurkitzea, kalkulagailua zentzuz erabilia. Erabilitako prozedura azaltzea.
99. Zenbaki jakin baten lehenengo multiploen seriea idaztea, kalkulagailuaren faktore konstantea erabiliz.
100. Frakzio baten zenbakizko balioa modu hamartar periodikoan adieraztea eta kalkulagailuaren pantailan agertzen den emaitza aztertzea.
101. Hiru frakzio edo gehiago ordenatzea, kalkulagailua erabiliz haien adierazpen hamartarrak lortu ondoren.
102. Goranzko eta beheranzko serieak idaztea kadentzia mota desberdinekin, kalkulagailua zentzuz erabiliz.
103. Zehatza ez den zatiketa baten hondarra kalkulatzeko.
104. Zenbaki baten segidako berreturak kalkulatzeko.
105. Kalkulagailuaren % tekla erabiliz ondokoak kalkulatzeko:
 - Portzentaje bat: $200 \text{ euroen } \%15 (200 \times 15 \%)$.
 - Portzentajezko gehikuntza bat: $200 \text{ euro gehi } \%15 (200 + \%15)$.
 - Portzentajezko kenketa bat: $200 \text{ euro ken } \%15 (200 \text{ euro} - \%15)$.
106. Berreketa baten zenbakizko balioa kalkulatzeko.

Problemak ebaztea.

Problema aritmetiko konbinatuak.

ADIERAZLEAK:

107. ** Idatziz (taula, katalogo eta abarren bidez) emandako datu edo informazio batzuk erabiliz erantzuten ahal zaien bi galdera edo gehiago idaztea
108. * Datu-zerrenda bat eta galdera bat emanda, galdera horri erantzun ahal izateko zein datu falta diren esatea.

- 1 0 9 . Datu batzuk eta horiekin zerikusia duten galdera batzuk emanda, zein galderari erantzuten ahal zaien eta zeini ez bereiztea eta azaltzea.
- 1 1 0 . Problemaren funtsezko osagaiak bereiztea.
Hauxe dakit: Hauxe kalkulatu nahi dut:
- 1 1 1 . Problema konbinatuak (zatikatu gabeak) ebatzea, horretarako eremu kontzeptual desberdinetako hainbat eragiketa (batuketa/zatiketak eta biderketa/zatiketak) ordena egokian egin behar direlarik.
Argi azaltzea, idatziz, problemaren soluziora iristeko eta soluzio hori logikoa dela egiaztatzeko asmatutako planaren urratsak (tarteko kalkuluen segida).
- 1 1 2 . Problema ebatzeko estrategia orokorraren segida logikoa ezagutu eta aplikatzea.
Problema konbinatuei aplikatzea ¹².
- 1 1 3 . Testuingurua eta eragiketa-katea emanda, eragiketa horien bidez ebatzi beharko den problema baten testua idaztea.
- 1 1 4 . Logikaz jokatzeko eta zentzurik gabeko eragiketarik ez egitea problema absurduen aurrean (ez dago galderaren eta datuen arteko loturarik) edo sasiproblemen aurrean (galderaren erantzuna problemako datuetako bat da).
- 1 1 5 . Hiru problema konbinatu emanda, 30 minutu iragan baino lehen haietako bi, gutxienez, ongi ebatzea.

.....

Zenbaketa sistematikoko problemak.

ADIERAZLEAK:

- 1 1 6 . Zerrenda bateko soluzio zuzenak bereiztea, alegia, problemak ezartzen dituen baldintza numeriko, logiko edo geometrikoak betetzen dituztenak.
* Soluzio guztiak zerrendan dauden ala ez esatea.
- 1 1 7 . ** Norberaren estrategiari jarraituz, zenbaketa sistematikoko problemak ebatzea testuinguru numeriko edo geometrikoan.

¹² Honela izan liteke estrategia orokorra:

- Problema ulertu.
- Problema geure buruari esan, datuak (zer dakit?) eta galdera (zer kalkulatu nahi dut?) bereiziz.
- Soluzioaren plana asmatu.
- Datu jakinekin zer kalkulatu daitekeen pentsatzea, soluziora eramanez duten kalkuluak zein ordenatan egin behar diren argi ikusi arte.
- Asmatutako plana bete.
- Planeko urratsak ordenatuta azaldu, dagozkien kalkuluekin. Erantzuna idatzi.
- Soluzioa egiaztatu.
- Tarteko kalkuluak berrikusi.
- Erantzuna "logikoa" dela egiaztatu, problemaren testua berriro irakurriz eta galderaren lekuan lortutako erantzuna jarri.

.....
Datu frakzionarioak edo portzentaje-koak dituzten problemak.

ADIERAZLEAK:

- 1 1 8. Datu frakzionarioak (sinpleak edo frakzioen frakzioak) eskema grafiko errektangularran jartzea:
- Bilduma baten hiru laurdenak (kopurua).
 - Bilduma baten hiru laurdenen bostena.
- 1 1 9. Datu frakzionarioak dituzten problemak ebaztea, problemako datu frakzionarioak eskema grafiko errektangularran jarri, soluzioa modu arrazoituan bilatzeko.
- 1 2 0. * Portzentaje-ko eragigai baten baliokide hamartarra ematea:
- A-ren %20 = $0,2 \times A$
 - ** $A + \%20 = 1,20 \times A$
 - ** $A - \%20 = 0,80 \times A$
- 1 2 1. Urrats bakarrekoko portzentaje-problema ebaztea:
- Kopuruaren ehunekoak kalkulatzeko:
200 metroren %15.
 - ** Portzentaje-ko aldakuntza aplikatzearen emaitza kalkulatzeko:
BEZaren %15eko gehikuntza.
%15eko deskontua.

.....
Indukzioaren (orokortzearen) bidez ebazten diren problemak.

ADIERAZLEAK:

- 1 2 2. Emandako serieak luzatzea, haien osaketa-legeak aurkitu ondoren.
- * Serie bateko leku jakin batean zein elementu egonen den zehaztea.
- 1 2 3. * Propietate numerikoak aurkitu eta enuntziatzea, zenbait kasu aztertzean ikusten diren irregulartasunetatik abiatuta.
- Zenbaki bikoiti bat bakoiti batez biderkatzen bada, emaitza nolakoa da?
 - Zati-garritasun-irizpidea: 3 zenbakiaz ...
- 1 2 4. ** Estrategia orokorra aplikatzea bi magnitudearen arteko mendekotasun-egoera sinpleak aztertzeko.
- Taula bat egitea eta bi aldagaiak zein diren adieraztea.
 - Kasu zehaztetan lortutako emaitzekin taula osatzea.
 - Bi aldagaien arteko mendekotasun-legea aurkitu eta enuntziatzea.

.....

Situaciones y problemas lógico-argumentativos ¹³.

ADIERAZLEAK:

- 1 2 5 . Kuantifikatzaileak (guztiak, batzuk bai, batzuk ez, bat ere ez, beti, noizean behin, inoiz ez ...) modu egokian erabiltzea egoera zehatzei buruz edo kontzeptu/erlazio/propietate ezagunei buruz aritzean.
- 1 2 6 . * Kuantifikatzaile numerikoak dituzten proposizioen (baino gehiago / baino gutxiago, gehienez / gutxienez ...) egia-balioa ezagutzea, egoera zehatzei buruz aritzean. Horrelako proposizio bat faltsua denean, zergatik den faltsua azaltzea.
- 1 2 7 . Baldintzazko proposizioen (baldin A, orduan B) egia-balioa ezagutzea, erlazio/kontzeptu ezagunez aritzean. Horrelako proposizio bat faltsua denean, zergatik den faltsua azaltzea.
- 1 2 8 . ** Bi kontzeptu ("A" eta "B") emanda, haien arteko erlazioa ezagutu eta adieraztea beharrezkoa/nahikoa terminoak erabiliz:
- "A" beharrezkoa da "B" bete dadin, baina ez da nahikoa.
 - "A" nahikoa da "B" bete dadin, baina ez da beharrezkoa.
 - "A" beharrezkoa eta nahikoa da "B" bete dadin.
 - "A" ez da beharrezkoa ez nahikoa "B" bete dadin.
- 1 2 9 . * Elementuen eta elementu-multzoen arteko erlazioak adierazten dituzten sarrera bikoitzeko taulak eta Venn-en diagramak interpretatzea. Sarrera bikoitzeko taulak eta Venn-en diagramak erabiltzea:
- Saillapenak edo inkesten emaitzak adierazteko.
 - Problema logiko xumeak ebazteko.
- 1 3 0 . * Hitzez adieraztea, argi eta zehatz, arrazoibide logikoen bidezko problemen ebazpena. ** Hitzezko azalpena luzeegia denean, kode edo prozedura grafiko ulergarriak erabiltzea.

NEURRIAK

.....

Magnitudeak eta neurri-sistemak.

ADIERAZLEAK:

- 1 3 1 . Magnitudeak neurtzeko hitzarmenezko neurri-sistema zergatik den beharrezkoa azaltzea.

- 1 3 2. Segidako konparazioen bidez eta arrazoibide trantsitiboak erabiliz honakoak ordenatzea:
- Hiru kuxtaren luzera/zabalera/altuera (kutzak elkarren ondoan edo gainean jarritz).
 - Hiru ontzi egokiren edukierak (edukia ontziz aldatuz).
 - Hiru objektu egokiren pisuak (besodun balantzarekin).
 - Hiru angeluren irekierak (angelu mugikorrarekin).
 - Hiru figura egokiren azalera (figurak zatituz/elkarren gainean jarritz).
- 1 3 3. Luzera, edukiera eta pisua neurtzeko Sistema Metriko Hamartarra nola erabiltzen den azaltzea eta Zenbaki Sistema Hamartarraren erabilerarekin alderatzea.

Unitateak	metroa, litroa, gramo	
Hamarrekoak	dam, dal, dag	$10 U = 1H / 10 m = 1 dam...$
Ehunekoak	hm, hl, hg	$100 U = 1E / 100 m = 1 hm...$
Hamarrenak	dm, dl, dg	$10 d = 1U / 10 dm = 1 m...$
Ehunetak	cm, cl, cg	$100 e = 1U / 100 cm = 1 m....$

- 1 3 4. Neurri-unitateen arteko baliokidetasunak ezagutu eta erabiltzea magnitude hauetarako: luzera, edukiera, pisua, denbora eta angeluen irekiera.
- 1 3 5. Azalera neurtzeko unitateen arteko baliokidetasunak ezagutu eta erabiltzea.
- 1 3 6. ** Bolumena neurtzeko unitateen arteko baliokidetasunak ezagutu eta erabiltzea.
- 1 3 7. Neurketa zehatzak egitea tresna egokiak erabiliz (erregela / zinta metrikoa, balantza, ontzi graduatuak, erlojuak / kronometroa, zirkulu graduatua / garraiagailua ...). Neurketen emaitzak adieraztea unitate egokienetan, hurbilketaren edo enkoadraketaren bitartez.
- 1 3 8. Modu sinplean edo konplexuan emandako lauzpabost neurri ordenatzea, aztertutako magnitudeetako bati dagozkionak.
- 1 3 9. Modu konplexuan emandako neurri bat modu sinplean (unitate txikienetan) ematea eta alderantziz:
- $2 hl 5l = 205 l$
 $2 h 40 min 20 seg = 9.620 seg$
 $3 m^2 70 cm^2 = 30.070 cm^2$
 $8.060 m = 8 km 60 m \quad \dots$
- 1 4 0. Unitate-aldaketak egitea:
- $3,4 dg = 0,34 g = 340 mg$
 $** 800 cm^3 = 0,8 dm^3 = 800.000 mm^3$
 $345 l = 3, 45 hl \quad \dots$
- 1 4 1. Neurrien zenbakizko adierazpenekin eragiketak egitea:
- Batuketak edo kenketak:
- $8 h 38 min 25 seg + 15 h 42 min 53 seg =$
 $314 dl - 600 cl =$
- Zenbaki arrunt batez biderkatu edo zatitzea:
- $8 l 35 cl : 5 = \quad / \quad 2 h 35 min x 3 =$

- 1 4 2 . * Sistema metrikoko azalera-unitateen eta nekazaritzako neurri-unitateen arteko oinarritzko baliokidetasunak ezagutu eta erabiltzea.
 $1 \text{ ha} = 10.000 \text{ m}^2 = 100 \text{ m-ko aldeak dituen karratu baten azalera.}$
 $1 \text{ ha} = 100 \text{ a}$
- 1 4 3 . ** Edukiera eta bolumena neurtzeko unitateen arteko oinarritzko baliokidetasunak ezagutu eta erabiltzea.
 $1 \text{ l} = 1 \text{ dm}^3 \dots$
- 1 4 4 . * Abiadura magnitudea erabiltzea, eta beste bi magnitudeen arteko zatidura/erlazioa dela azaltzea (egindako distantzia zati behar izandako denbora).
- 1 4 5 . Batez besteko abiadurak kalkulatzeko.
- 1 4 6 . Bi magnitude egokiren kantitateen arteko proportzioak ezartzea.
 - Erositako kantitatea / ordaindu beharreko prezioa.
 - ** Oinarriaren luzera / azalera.
 - Abiadura / denbora / distantzia.
- 1 4 7 . Ikasitako magnitudeen kantitate jakinetarako berariazko erreferenteak ezagutzeko.
- 1 4 8 . Ikasitako magnitudeen elementu egokien neurria zenbatestea, askotariko estrategiak edo buruz ikasitako erreferentzia-puntuak erabiliz.
 Egindako zenbatespenak neurri-unitate egokietan adieraztea.

3. FORMA GEOMETRIKOAK

Geometria.

ADIERAZLEAK:

- 1 4 9 . Angelu kontzeptua biraketekin lotzea.
- 1 5 0 . Angelu mota desberdinak sailkatzea.
- 1 5 1 . Emandako angelu konbexuen/konkaboien neurria gradutan adieraztea.
- 1 5 2 . Angelu baten irekiera neurtzea, garraiagailua edo zirkulu graduatua erabiliz.
- 1 5 3 . Perimetro eta azalera kontzeptuak bereiztea.
- 1 5 4 . Formari eta tamainari dagozkion propietateak aplikatzea figura geometrikoak konparatzean.
- 1 5 5 . * Figura geometriko bat handitu edo txikitzea forma aldatu gabe, eta erabilitako prozedura azaltzea.
- 1 5 6 . Unitate patroi bat emanda, puntu-sarearen gainean marraztutako figuren azalera lortzea.
- 1 5 7 . ** Forma desberdinak eta azalera bera dituzten figurak marraztea puntu-sarearen gainean.
- 1 5 8 . Figura geometriko sinpleen azalera kalkulatzeko formulak ezagutu eta erabiltzea.
- 1 5 9 . Behar diren zatiketak / neurketak eginez, figura geometriko sinpleen azalera kalkulatzeko (triangeluak, errektangeluak, koadrilateroak, zirkuluak ...).

160. Ortoedro eta prisma desberdinen bolumena kalkulatzeko, behar diren neurketak eginez.
161. Bi zuzenek planoan edo espazioan bata bestearekiko izan ditzaketen kokapen erlatiboak deskribatzea.
162. Erdibitzaileak eta erdikariak marraztea, erregela eta konpasa erabiliz.
163. Segmentu baten erdibitzailearen eta angelu baten erdikariaren kontzeptuak definitzea.
164. * Erdibitzaile edo erdikari bateko puntuen funtsezko propietatea aurkitu eta enuntziatzea.
165. Zuzen bat eta A puntu bat emanda, A puntutik pasatzen diren paraleloa eta perpendikularra marraztea.
166. Ondoz ondoko angeluak, angelu auzokideak, erpinez aurkako angeluak, angelu osagarriak eta angelu betegarriak bereiztea eta zer diren azaltzea.
167. Edozein triangeluren, edozein koadrilateroren eta edozein poligonoren barneko angeluen guztizko balioa zenbat den aurkitzea eta enuntziatzea.
168. Angeluen arteko batuketak eta kenketak zirkunferentzia batean egin eta irudikatzea.
169. Zuzen batek bi zuzen paralelo ebakitzean osatzen diren zortzi angeluen arteko berdintasunak ezagutu eta erabiltzea.
170. Poligono batean alde/erpin/apotema/perimetro/azalera kontzeptuak bereiztea.
171. Poligonoak bereizi eta izendatzea aldean kopuruaren arabera (triangeluak/koadrilateroak/pentagonoak...) eta angeluen arabera (konbexuak eta konkaboak).
172. Poligono batean barne-angeluak eta kanpo-angeluak bereiztea.
173. Triangeluak izendatzea aldean luzera eta angeluen irekiera kontuan hartuta.
174. Zazpi triangelu motak marraztea/egitea, haien ezaugarriak nabarmenduz.
175. Triangelu baten hiru altuerak identifikatu eta marraztea.
176. Behar diren datuak emanda, dagokien triangelua marraztea.
177. * Zirkunferentzia bat marraztea triangelu batean zirkunskribaturik eta inskribaturik.
* Erabilitako prozedura azaltzea.
178. Baldintza jakinak betetzen dituzten poligonoak marraztea/egitea.
Adibidea: Bost alde ditu, angeluetako bat konkaboa du eta beste bat zuzena.
179. Erregela eta konpasa erabiliz, hexagono erregularra eta triangelu ekilateroa marraztea.
180. Koadrilatero motak zein diren esatea.
Zazpi koadrilatero motak marraztea/egitea, haien ezaugarriak nabarmenduz.
181. Koadrilatero mota bakoitzaren diagonalen propietateak aurkitu eta enuntziatzea.
182. Figura egoki batzuk emanda, haien simetria-ardatzak bilatu eta marraztea eta simetria-ardatz direla egiaztatzea.
183. * Biraketa-simetriaren bat duten figurak edo logotipoak bereiztea eta haien ezaugarriak azaltzea.
184. Figura simple bat emanda, figura simetrikoa marraztea:
- Simetria-ardatza horizontala edo bertikala denean.
- ** Simetria-ardatza zeharra denean.

185. Puntu-sare batean ondokoak bereizi edo marraztea:
 - Perimetro bera eta azalera desberdinak dituzten figurak.
 - Azalera bera eta perimetro desberdinak dituzten figurak.
186. Figura geometrikoen perimetro zehatza edo gutxi gorabeherakoa kalkulatzeko sarearen gainean, sareko oinarri-segmentua unitatetzat hartuta.
187. Figura simple baten kopia egitea, erregela, konpasa eta zirkulu graduatua erabiliz.
188. Figura geometriko simple baten kopia egin ahal izateko behar diren jarraibideak ahoz ematea.
189. * Figura geometriko bat zenbait aldiz handiago/txikiago bihurtzea.
190. Figura simple bat emanda (gezia, karratua, errektangelua, triangelu ekilateroa), biraketa jakin batzuk egitean osatzen den figura kongruentea marraztea:
 - Biraketa-zentroa figurako puntu bat denean.
 - * Biraketa-zentroa figuratik kanpo dagoenean.
191. Zirkunferentziako eta zirkuluko oinarriko elementuak (erradioa, diametroa, korda, arkuak, ukitzaila, segmentu zirkularra, sektore zirkularra, koroa zirkularra...) marraztea eta nolakoak diren esatea.
192. Zuzen batek zirkunferentziarekiko izan ditzakeen kokapen erlatiboak deskribatu eta marraztea.
193. Bi zirkunferentziak elkarrekiko izan ditzaketan kokapen erlatiboak deskribatu eta marraztea.
194. π -ren balioa buruz ikastea eta zirkunferentziaren luzeraren eta diametroaren arteko zatidura dela jakitea.
195. Zirkunferentzia baten luzera kalkulatzeko.
196. * Friso batean figura sortzailea identifikatu eta frisoa osatzea.
197. Zoladura simple bateko pautak identifikatu eta zoladura sistematikoki osatzea.
198. * Geoplanoan edo paper-orri saretuan marrazturiko figura egoki batzuen artetik kongruenteak direnak identifikatzea.
 Nola lortu diren azaltzea (simetriaren, biraketaren edo translazioen bidez).
199. Benetako edo marraztutako gorputz geometriko batzuen artetik poliedroak eta gorputz biribilak bereiztea eta nolakoak diren esatea.
200. Benetako edo marraztutako poliedro batzuen artetik prismak eta piramideak bereiztea eta nolakoak diren esatea.
201. Aurpegia, ertza eta erpina zer diren esatea.
202. Benetako edo marraztutako poliedro simple baten aurpegiak, ertzak eta erpinak zenbatzea.
203. ** Ebakidura (sekzio) jakin batzuek nolako forma izanzen duten asmatu eta egiaztatzea, kubo batean ebakidurak eginez.
204. Prismak edo piramideak izendatzea oinarriko poligonoari erreparatuta.
205. Poliedro erregularrak identifikatzea, izendatzea eta nolakoak diren esatea.
206. Gorputz geometriko batean, ertz edo aurpegi paraleloak eta perpendikularrak identifikatzea.
207. Kuboak egiteko plantilla desberdinak ezagutu edo marraztea.

208. Poliedro sinpleei dagozkien plantillak ezagutzea.
209. * Figura lau batzuk modu egokian biratuz sortzen diren biraketa-gorputzak aurkitu eta nolakoak diren esatea.
210. * Sare isometrikoan gorputz geometriko sinpleak irudikatzea.
211. * Gorputz geometrikoak goitik eta aurretik ikusita ezagutzea eta irudikatzea.

Espazioko orientazioa.

ADIERAZLEAK:

212. Inguruko objektu egokien kokapena deskribatzea:
- norbera erreferentzia izanik,
 - beste norbait erreferentzia izanik.
- Norbera modu egokian kokatzea, zerbait edo norbait aurretiaz zehaztutako posizioan egon dadin norberarekiko.
- Benetako edo marraztutako ilara bateko pertsonen kokapen erlatiboak deskribatzea (aurrera, atzera edo alde batera begira daude).
213. Kubo bateko aurpegi, ertz eta erpinen kokapena azaltzea goian / behean, aurrean / atzean, eskuinean / ezkerrean terminoen bitartez, kasu bakoitzean behar adina deskribatzaile erabiliz: bat aurpegientzat, bi ertzentzat, hiru erpinentzat.
214. Benetako edo marraztutako kubo batean bi erpin markatu ondoren, erpin batetik bestera kuboaren ertzei jarraituz iristeko bide posible guztiak erakustea:
- Ibilbide bakoitzaren nondik norakoa deskribatuz.
 - Ibilbide guztiak egokiro kodetuz.
215. Espazio mugatuetan edo sare baten gainean ibilbideak egitea, norabide bakoitzean zenbateko tartea egin behar den jakinik.
216. Zehaztasunez azaltzea (egin gora/behera, biratu eskuinera/ezkerrera...) toki batetik bestera iristeko bidea, eskolan edo lokal ezagunetan.
217. Erreferentzia-sistema ortonormala emanda, puntuak aurkitzea eta figurak marraztea koordenatu kartesiarrak erabiliz.
218. Gurutzegramaren, errepide-maparen eta abarren funtzionamendua ulertzea.
219. ** Planoan puntuak aurkitu eta marraztea, erreferentzia-sistema polarra erabiliz (angelu eta distantzien bitartez).
220. * Patioan edo mapan puntuak aurkitu edo ibilbideak deskribatzea, puntu jakin batetik abiatuta, behin puntu kardinalak non dauden zehaztu eta gero.
221. * Lur-esferan puntuak aurkitzea (meridianoak, paraleloak).
222. Gorputz geometriko edo objektu egoki batzuk mahai gainean paratuta:
- Goitik ikusten denaren krokis zehatza egitea (gainak).
 - Mahaiaren arrasean aurrez aurre ikusten denaren krokisa egitea (siluetak).
- * Alderantzizko prozesua egitea, aurreko bi krokis horietatik abiatuta.

- 223. Toki ezagunen krokisak egitea (logela, ikasgela, patioa ...).
- 224. Benetako edo marraztutako eraikin baten kopia egitea kubo ahokagarriekin.
- 225. Gorputz geometrikoen argazkiak edo marrazkiak interpretatzea/deskribatzea paper saretuaren gainean.
- 226. * Gorputz geometriko sinpleen bista desberdinak marraztea perspektibarekin, paper saretuan.
- 227. Plano sinpleak interpretatzea/deskribatzea (adibidez, etxebizitza baten planoak), hiztegi geometrikoa eta gelen forma eta kokapena zehaztasunez adierazteko behar diren terminoak erabiliz.
- 228. Errepide-mapa bat interpretatzea eta bertan tokiak aurkitzea.
- 229. Ibilbideak azaltzea eta distantziak kalkulatzeko.

4. INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA

Oinarrizko estatistika.

ADIERAZLEAK:

- 230. * Aldagai estatistikoaren motak ezagutzeko eta zertan diren azaltzea:
 - Kualitatiboak.
 - Kuantitatiboak: diskretuak eta jarraituak.
- 231. Errealitatearen alderdi kualitatibo edo kuantitatibo bati buruzko informazioa biltzeko erabil daitezkeen teknikak azaltzea.
- 232. Aldagai kuantitatibo edo kualitatibo bati buruzko datuak bildu eta erregistratzea, inkestak, neurketak eta planifikatutako behaketa sistematikoak eginez.
- 233. Maiztasun absolutuen taulak eta sarrera bikoitzeko taula xumeak egin, deskribatu eta interpretatzea kasu hauetan:
 - Aldagaia kualitatibo edo kuantitatibo eta diskretua denean.
 - Aldagaia kuantitatibo eta jarraitua denean (balioak tarteka).
- 234. * Aldagai estatistiko baten balioaren edo modalitatearen maiztasun absolutua eta maiztasun erlatiboa bereiztea.
- 235. * Batezbesteko aritmetikoa zer den eta ikasleentzat esanahi argia duten azterketa estatistikoetan zertarako erabiltzen den azaltzea. Eguneroko egoera praktikoetan batezbesteko aritmetikoak kalkulatzeko.
- 236. Grafiko estatistikoak egin, deskribatu eta interpretatzea (barradunak, linealak, sektoredunak).
- 237. Ausazko saiakuntza errazetan, gertaera elemental posible guztiak aipatzea.
- 238. Mintzaira arrunteko esamoldeak eta mintzaira matematikoko esamoldeak alderatzea ausari buruz mintzatzeko.

239. * Gertaeren probabilitatea kalkulatzeko ausazko saiakuntza errazetan:
- Dado bat bota eta zenbaki bikoitia ateratzeko probabilitatea.
 - 6 bola zuri eta 4 urdin dituen zorrotik bola urdina ateratzeko probabilitatea.
 - ** Bi txanpon airera botatzean bi aldeak ateratzeko probabilitatea.
 - ** Bi dado aldi berean botatzean ateratzen diren zenbakien batura 7 izateko probabilitatea.
 - ...
240. ** Ausazko joko errazetako estrategiak aurkitzea/erabiltzea/azaltzea:
- Zein zenbaki eskatuko zenuke, bi dado botatzean ateratzen diren puntuen batura asmatu behar bazenu?
 - Eta puntuazioen arteko kendura asmatu behar bazenu?
 - ** Poltsa batean 2 bola gorri eta 3 bola urdin daude. Jokaldi bakoitzean bi bola atera behar dira begiak itxita, eta jokaldi bakoitzeko 5 euro ordaindu behar dira. Jokalariak kolore bereko bi bola ateratzen baditu, 10 euro irabaziko ditu. Zer nahi zenuke izan joko honetan, jokalaria ala banka?



ESTÁNDARES DE LENGUA CASTELLANA

PRIMER CICLO

1. COMUNICACIÓN ORAL	121
■ Situaciones e intenciones comunicativas.	121
■ Intercambio verbal.	121
■ Comprensión de mensajes en las diferentes situaciones de la comunicación oral.	122
■ Expresión y producción de textos orales.	122
■ Audición, reproducción y creación de cuentos ...	123
■ Memorización y reproducción de textos orales.	124
■ Dramatización de textos adaptados a la edad.	124
■ Escuchar, recoger datos, preguntar.	124
■ Diversidad lingüística de la Comunidad Foral de Navarra.	125
2. COMUNICACIÓN ESCRITA.	
LA LECTURA	125
■ Relaciones entre la lengua oral y la lengua escrita.	125
■ Estrategias de comprensión. Lectura comprensiva.	125
■ Estrategias de comprensión. Análisis del título y de las ilustraciones ...	126
■ Interés y gusto por la lectura.	126
■ Identificación y valoración crítica de los mensajes.	127
■ Utilización y disfrute de la biblioteca.	127
■ Lectura como instrumento de aprendizaje.	127
■ Diversidad lingüística de la Comunidad Foral de Navarra.	127
3. COMUNICACIÓN ESCRITA.	
LA ESCRITURA.	128
■ Recursos gráficos en la comunicación escrita.	128
■ Producción de textos según su tipología.	128
■ Elementos lingüísticos y no lingüísticos en la comunicación escrita.	129
■ Producción de textos. Normas y estrategias.	129
■ Diversidad lingüística de la Comunidad Foral de Navarra.	130

Leer y escribir en soporte informático.	130
■ Utilización del lenguaje escrito como instrumento de crítica a los valores discriminatorios.	130
4. LA DIMENSION ARTÍSTICA Y LÚDICA DEL LENGUAJE	131
5. REFLEXIÓN SOBRE LA LENGUA	131
■ Estructuras básicas de la lengua. La palabra.	131
■ Vocabulario. Campos semánticos ...	131
■ Abecedario e iniciación al orden alfabético.	131
■ Ortografía.	132
■ Distinción de los tiempos verbales.	132
■ Variedad textual según la intención comunicativa.	132
6. TECNOLOGÍA DE LA COMUNICACIÓN	132
■ Iniciación en el uso de las TIC.	132
■ Utilización de programas educativos sencillos.	133
■ Interés por el empleo de las TIC.	133

SEGUNDO CICLO

1. COMUNICACIÓN ORAL	134
■ Situaciones e intenciones comunicativas.	134
■ Comprensión y expresión de mensajes verbales y no verbales.	134
■ Expresión y producción de textos orales según su tipología.	135
■ Creación de textos literarios.	135
■ Comprensión de textos según su tipología.	136
■ Audición, reproducción y creación de textos.	136
■ Memorización de textos.	137
■ Dramatización.	137
■ Estrategias de aprendizaje.	137
■ Diversidad lingüística de la Comunidad Foral de Navarra.	138
2. COMUNICACIÓN ESCRITA.	
LA LECTURA	138
■ Relaciones entre lengua oral y lengua escrita.	138
■ Lectura en voz alta.	139
■ Estrategias de comprensión en diferentes tipos de textos.	139

Memorización de textos breves.	1 4 0
■ Estrategias para la comprensión de textos.	1 4 0
■ Gusto por la lectura.	1 4 1
■ Identificación y valoración crítica de los mensajes.	1 4 1
■ Uso de la biblioteca. Organización y respeto de las normas.	1 4 1
■ Diversidad lingüística de la Comunidad Foral de Navarra.	1 4 1
■ Lectura como instrumento de aprendizaje.	1 4 1
3. COMUNICACIÓN ESCRITA.	
LA ESCRITURA	1 4 2
■ Recursos gráficos en la comunicación escrita.	1 4 2
■ Producción de textos según su tipología.	1 4 2
■ Producción de textos. Normas y estrategias.	1 4 3
■ Producción de textos. Valoración y uso de normas ortográficas.	1 4 3
■ Diversidad lingüística de la Comunidad Foral de Navarra.	1 4 4
■ Leer y escribir en soporte informático.	1 4 4
■ Estrategias para el tratamiento de la información.	1 4 4
4. LA DIMENSIÓN ARTÍSTICA Y LÚDICA DEL LENGUAJE	1 4 5
5. REFLEXIÓN SOBRE LA LENGUA	1 4 5
■ Estructuras básicas de la lengua. La oración.	1 4 5
■ Categorías gramaticales: nombre, verbo, adjetivo, artículo y pronombres personales.	1 4 5
■ Concordancia de género y número.	1 4 6
■ Clases de nombres.	1 4 6
■ La sílaba.	1 4 6
■ Vocabulario. Campos semánticos. Familias de palabras.	1 4 6
■ Ortografía. Reglas para palabras de uso frecuente. La puntuación.	1 4 7
■ Conjugación de los tiempos verbales: presente, pasado y futuro de indicativo.	1 4 7
■ Diversidad lingüística de la Comunidad Foral de Navarra.	1 4 8
6. TECNOLOGÍA DE LA COMUNICACIÓN	1 4 8
■ Utilización de las TIC como instrumento de aprendizaje.	1 4 8
■ Utilización de programas educativos.	1 4 8
■ Interés por el empleo de las TIC para redactar trabajos propios.	1 4 8

TERCER CICLO

1. COMUNICACIÓN ORAL	149
■ Situaciones de comunicación espontáneas o dirigidas.	149
■ Comprensión y expresión de mensajes verbales y no verbales.	149
■ Expresión y producción de textos según su tipología.	150
■ Creación de textos literarios en prosa o en verso.	151
■ Comprensión de textos orales según su tipología.	151
■ Dramatizaciones de textos literarios.	151
■ Estrategias para utilizar el lenguaje oral.	152
■ Diversidad lingüística de la Comunidad Foral de Navarra.	152
